


ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

Eraikuntzaren sektorea 2009 Txostena




2010eko azaroa



AURKIBIDEA

1. SARRERA	7
2. ERAIKUNTZA EAEn.....	9
2.1. Eraikuntza-sektoreko BPGd-ren eta BEGren bilakaerak	9
2.2. Enplegua eraikuntza-sektorean.....	13
2.2.1. Lanean ari den biztanleria eta lurraldekako banaketa	13
2.2.2. Enpleguaren ezaugarri nagusiak	14
2.3. Eraikuntzako azpisektoreak.....	17
2.3.1. Ekoizpenaren bilakaera azpisektoreka	17
2.3.2. Etxebizitzen eraikuntza	18
2.3.3. Etxebizitzak birgaitzea	21
2.3.4. Obra publikoaren eskaintza ofiziala	23
2.4. Eraikuntza-sektoreko kostuen bilakaera	26
2.5. Eraikuntza-sektoreko eta higiezinaren jardueretako establezimenduak	27
2.6. Ekoizpen-makromagnitudeak	34
3. ERAIKUNTZA ESPAINIAN.....	37
3.1. Garrantzi erlatiboa eta berriki izandako bilakaera.....	37
3.2. Eraikuntzako azpisektoreei buruzko analisia	40
3.2.1. Sarrera	40
3.2.2. Bizitegi-eraikuntza eta etxebizitzaren eskaria.....	42
3.2.3. Eskaintza ofiziala.....	44
3.3. Sektorekako kostuak.....	46
3.4. Enpresa-egitura eta -dinamika	47
3.5. Kanpo-jarduera	50
4. ERAIKUNTZA EUOPAR BATASUNEAN	52
4.1. Ekoizpen-mailen analisia.....	52
4.2. Enplegua eraikuntza-sektorean.....	56
4.3. Jarduera azpisektoreka	57
4.4. Enpresa-egitura	60
4.5. Kanpo-jarduera	61
4.6. Sektorearen perspektibak	63
5. LABURPENA ETA ONDORIOAK	65




TAULEN AURKIBIDEA

Orrialdea

2.1. taula	BEGren bilakaera sektoreka (gaur egungo prezioak). EAE. 1997-2009	10
2.2. taula	Balio erantsi gordina eraikuntza-sektorearen merkatuko prezioetan. EAE. 1997-2009	11
2.3. taula	Eraikuntza-sektoreko BEGek lurraldeka duen banaketa (gaur egungo prezioak) 1997-2007	12
2.4. taula	Sektorearen urteko hazkunde-tasak kopuru errealetan. EAE eta lurralde historikoak. 1998-2009	12
2.5. taula	Eraikuntza-sektorean lan egiten duen biztanleriaren lurraldekako banaketa*. 2002-2009.	14
2.6 taula	Laneko ezbehar-tasa. EAE, 2004-2009.....	16
2.7. taula	Eraikuntza-sektorearen ekoizpenaren bilakaera, azpisektoreka. EAE, 1997-2009	18
2.8 taula	Eraikitzen hasitako eta amaitutako etxebizitzak sustapen motaren arabera. EAE. 1997-2009	19
2.9. taula	Eraikitzen hasitako eta amaitutako etxebizitzak lurralde historikoka. 1997-2009.....	20
2.10. taula	Etxebizitzak handitzeko eta/edo birgaitzeko jarduera	22
2.11. taula	Etxebizitzak birgaitzeko Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntzak. EAE. 2003-2009	22
2.12. taula	Eraikuntza eta herri-lanak EAEn. Eskaintza ofiziala erakundeka. 2000-2009.....	23
2.13. taula	Eraikuntzako kostuen indizearen bilakaera, azpisektoreka eta osagaien arabera. EAE. 1997-2009.....	26
2.14. taula	Eraikuntza-sektoreko eta higiezinaren jardueretako azpisektore nagusiak.....	27
2.15. taula	Eraikuntzaren sektorea eta higiezinaren sustapena EJSN 2009 sailkapen berriaren arabera	28
2.16. taula	Eraikuntza-sektoreko establezimendu kopuruaren bilakaera azpisektoreka. EAE.....	30
2.17. taula	Eraikuntza-sektoreko establezimenduen bilakaera eskualdeka, 1995-2009.....	31
2.18. taula	Higiezinaren sektoreko establezimendu kopuruaren bilakaera azpisektoreka. EAE.....	32
2.19. taula	Higiezinaren sektoreko establezimenduen bilakaera eskualdeka, 1995-2009.....	33
2.20. taula	Eraikuntza-sektoreko ekonomiaren makromagnitudeak. EAE. 2007-2008.....	35
3.1. taula	BPGd eta eraikuntzaren sektoreko BEG merkatuko prezioen arabera. Espainia. 2003-2009	38




3.2. taula	Espainiako makroekonomiaren bilakaera eta aurreikuspenak. 2009-2011.....	38
3.3. taula	Enplegua eraikuntza-sektorean. Espainia. 2003-2009.....	39
3.4. taula	Espainiako eraikuntza-sektoreko beste hainbat adierazle. 2003-2009.....	40
3.5. taula	Barne-ekoizpenaren bilakaera azpisektoreka. Espainia. 1996-2009.....	40
3.6. taula	Eraikitzen hasitako eta amaitutako etxebizitzak sustapen motaren arabera. 2003-2009.....	43
3.7. taula	Eskaintza ofizialaren bolumenaren* bilakaera. 2003-2009.....	44
3.8. taula	Eraikuntzako kostuen indizeak. Espainia. 2005-2009.....	46
3.9. taula	Eraikuntza-sektoreko enpresa kopuruaren bilakaera. 2006-2009.....	47
3.10. taula	Espainiako eraikuntza-sektoreko enpresa nagusiak, 2008.....	49
3.11. taula	Eraikuntza espainolaren esportazioa xede-herrialdearen arabera. 2006-2009.....	51
4.1. taula	Eraikuntza-jardueraren bilakaera Europar Batasunean. 2005-2009.....	54
4.2. taula	Eraikuntza-sektoreko enpleguaren bilakaera. EB 2000-2009.....	56
4.3 taula	Eraikuntzako enpleguaren bilakaera EBn, herrialdeka. 2005-2009.....	57
4.4 taula	Eraikuntza-sektorearen barne-ekoizpenaren bilakaera, azpisektoreka EBn 2003-2009.....	58
4.5. taula	Europako eraikuntza-enpresa nagusiak.....	61
4.6. taula	EB-25 eskualdeko makroekonomiaren bilakaera eta aurreikuspenak, 2000-2006. 2004-2010.....	63




GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Orrialdea

2.1. grafikoa	Eraikuntza-sektorearen eta BPGd-ren hazkunde-tasaren bilakaera. EAE. 1998-2009.	9
2.2. grafikoa	Sektoreek euskal BPGd-ra egindako ekarpena.....	11
2.3. grafikoa	Eraikuntzan ekoizpenaren eta enpleguaren bilakaera. 2003-2009.....	13
2.4. grafikoa	Eraikuntzaren sektoreko enpleguaren bilakaera lurralde historikoka. 2003-2009.....	14
2.5. grafikoa	Eraikuntzan lan egiten duten biztanleak sexuaren arabera. 2009	15
2.6. grafikoa	Laneko ezbehar kopuruen eraginaren indizea eraikuntza-sektorean	16
2.7. grafikoa	Eraikuntza-sektorearen ekoizpenaren bilakaera, azpisektoreka. EAE, 1997-2009	18
2.8. grafikoa	Eraikitzen hasitako etxebizitzaren bilakaera, sustapen motaren arabera. EAE. 1997-2009.....	20
2.9. grafikoa	EAEn formalizatutako hipoteken bilakaera lurralde historikoka. 1996-2009.....	21
2.10. grafikoa	Eskaintza ofizialaren bilakaera EAEn. Herri-administrazioak. 1997-2009.....	24
2.11. grafikoa	Eskaintza ofiziala obra motaren arabera. EAE. 2006-2009.....	25
2.12. grafikoa	Eusko Jurlaritzak eskaintza ofizialaren guztizkoan duen agerpena obra motaren arabera. 2005-2009.....	25
2.13. grafikoa	Eraikuntzako kostuen indizearen bilakaera. EAE. 1997-2009	26
2.14. grafikoa	Eraikuntza-sektoreko eta higiezinaren sektoreko establezimendu kopuruaren bilakaera.....	29
2.15. grafikoa	Eraikuntza-sektoreko establezimenduak enplegu-estratuen eta lurralde historikoen arabera. 2009.....	30
2.16. grafikoa	Eraikuntza-sektoreko establezimenduak lurralde historikoen arabera. 2009	33
2.17. grafikoa	Eraikuntza- eta industria-sektoreetako makromagnitude ekonomikoen egituren alderaketa. 2008.....	36
3.1. grafikoa	Eraikuntza-sektoreko urte arteko BPGd-ren eta BEGren aldaketa-tasak Espainian. 2001-2009.	37
3.2. grafikoa	Eraikuntzako jardueraren azpisektoreen bilakaera. 1997-2009 (urte arteko aldaketaren portzentajeak kopuru errealetan)	41
3.3. grafikoa	Eraikuntza-sektorearen ekoizpena. Pisu erlatiboaren bilakaera azpisektoreka.....	41
3.4. grafikoa	Eraikitzen hasitako eta amaitutako etxebizitzaren kopurua. 1997-2009.....	42
3.5. grafikoa	Eraikitzen hasitako etxebizitzaren bilakaera erregimenaren arabera. 1997-2009.	43
3.6. grafikoa	Inbertsio atzerritarra higiezinaren esparruan. 1997-2009.	44



3.7. grafikoa	Eskaintza publikoak Espainiako BPGd-n duen pisua. 1997-2009.....	45
3.8. grafikoa	Eskaintza ofizialaren banaketa obra motaren arabera	46
3.9. grafikoa	Eraikuntza-sektoreko enpresek Espainiako enpresa-ehunduran duten pisua ehunekotan. 1997-2009.....	48
3.10. grafikoa	Eraikuntza-sektoreko enpresen egitura (2009)	49
3.11. grafikoa	Eraikuntza-sektoreko esportazio espainolaren bilakaera. 1996-2009.....	50
4.1. grafikoa	Eraikuntza-sektoreko ekoizpenaren bilakaera. EB (1). 2001-2009.....	53
4.2. grafikoa	Eraikuntza-sektoreko ekoizpena EB-27an, 2008-2009.	53
4.3. grafikoa	Eraikuntzak BPGd-ra egindako ekarpena EBn (% eraikuntza/BPGd-, 2009*).....	55
4.4. grafikoa	Europar Batasuneko merkatu nagusietan etxebizitza berriaren eraikuntzak izandako bilakaera. 2000-2009*	59
4.5. grafikoa	Eraikuntza-sektorearen ekoizpenaren banaketa, azpisektoreka, 2006-2009.....	60
4.6. grafikoa	Kanpo-fakturazioaren bolumenaren bilakaera. 2001-2009.....	61
4.7. grafikoa	Europako herrialde nagusien nazioarteko fakturazioaren bilakaera. 2001-2009.	62
4.8. grafikoa	Eraikuntza-sektorearen ekoizpenaren bilakaera, azpisektoreka. EB 2010	64



1. SARRERA

Eraikuntzaren Sektoreari buruzko Txosten hau Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak etxebizitzaren eta lurzoruaren merkatuak bizi duen egoera behar den bezala ezagutzeko Etxebizitzaren Behategiarentzako lantzen dituen azterketa eta txostenen artean kokatzen da.

2010eko txosten hau tresna baliotsua da Sailarentzat, izan ere, eraikuntzan parte hartzen duten eragileen egoera eta egiturari buruzko azterketa zorrotza eta zehatza egiten du, eta lantzen diren gainerako argitalpen guztiekin batera (eskaintza inmobiliarioa, etxebizitza-politikak, higiezinaren merkatuaren laburpena, eta abar), informazio lagungarria eskuratzen du Sailak euskal herritarrek dituzten beharrei erantzuteko etxebizitza-politika eraginkorrak diseinatzeko.

Txosten hau bost kapitulu handitan banatuta dago, sarrera egiten duen kapitulu hau barne.


Hala, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn) eraikuntza-sektoreak izan duen bilakaera aztertzen da 2. kapituluan.

Testuinguru horretan, sektorean eta sektorea banatzen den azpisektoreetan izandako bilakaera ekonomiko orokorrari buruzko informazioa ematen du kapitulu honek, eta arreta berezia jartzen du bizitegi-eraikuntzaren eta eskaintza ofizialaren azterketaren gainean, sektoreko establezimenduei eta enpleguari buruzko datuak eskaintzen ditu eta, amaitzeko, makromagnitude ekonomiko nagusiei buruzko informazioa islatzen du.

Ondoren, hirugarren kapituluak eraikuntzaren sektoreak Espainian izan duen bilakaeraren azterketa egiten du.

Hainbat alderdiri buruzko informazioa eskaintzen da kapituluan: sektorearen pisu erlatiboa eta oraintsu izan duen bilakaera, sektorea osatzen duten azpisektoreen bilakaerari buruzko azterketa xehatua, edo interesekoak diren alderdiei (sektorearen kostuak, sektoreko enpresen ehundura, mugaz haragoko jardueri buruzko informazioa) buruzko informazioa.


Ondoren, 4. kapituluan Europar Batasunean eraikuntzaren sektoreak izan duen bilakaera aztertzen da, dela ekoizpen mailan, dela enpleguan nahiz mugaz haragoko jardueretan; gainera, beste hainbat alderdi ere aztertzen dira, esaterako enpresen egitura. Agregatuen ikuspegitik nahiz azpisektoreenetik egindako azterketa aurkezten da. Horrez gain, datozen urteotan sektoreak dituen itzaropenei buruzko azterketa ere egiten da kapitulu honetako atal batean. Azpimarratu behar da 3. eta 4. kapituluetan bildutako informazioari esker EAEn sektore honek duen egoerari testuingurua jartzen



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

zaiola, eta Espainiako nahiz Europako testuinguruarekiko dauden berezitasunak agerian uzten direla honela.

Eta, amaitzeko, 5. kapituluan laburbilduko dira azterlana egitean lortutako ondorio nagusiak.




2. ERAIKUNTZA EAEn

2.1. BPGd-ren eta eraikuntza-sektoreko BEGren bilakaerak

Euskal ekonomiak 2008an hasitako beherakada berretsi zen 2009an. Hain zuzen ere, barne-produktu gordinak 2009an ezagututako urte arteko aldaketa $-\% 3,8$ koa izan zen, azken urteetako historia ekonomikoaren emaitzarik negatiboena. 2008an, jada, ekonomiak hazkunde oso geldoa ezagutu zuen ($+\% 1,3$), baina positiboa zen oraindik ere. Uzkuadura nagusi zen testuinguru horretan, urtearen azken zatian tasek ezagututako hobekuntza txikia azpimarratu behar da eta, nahiz eta tasa negatiboak erregistratu ziren, bazirudien egoera hobetzen hasiko zela; eta hobekuntza hori baieztatu egin da 2010eko bigarren hiruhilekoan ezagutu den hazkunde positiboarekin (BPGd-ren aldaketa-tasa $-\% 0,8$ koa izan da 2010eko lehen hiruhilekoan eta $+\% 0,5$ koa bigarreanean).

Euskal ekonomiari dagokionez, Espainiako ekonomiak eta Europar Batasunekoak erakutsitako portaeraren antzekoa izan da EAEn. 2009an BPGd-ren bilakaera $-\% 3,7$ eta $-\% 4,2$ izan zen, hurrenez hurren, nahiz eta urtearen azken zatian jardueraren beherakada-eritmoak motelduko zirela zirudien.


2.1. grafikoa Eraikuntza-sektorearen eta BPGd-ren hazkunde-tasaren bilakaera. EAE. 1998-2009.



* BEG: Balio Erantsi Gordina.

Iturria: Eustat. Hiru hileko Kontu Ekonomikoak.

Bestalde, eraikuntzaren sektoreak 2009an ezagututako uzkuadura aurreko urtekoa baino arinagoa izan zen eta, horrela, eraikuntzako BEGren aldaketa-tasa $-\% 3,6$ koa izan zen, 2008an $-\% 5,8$ koa izan zen bitartean. Hala ere, 2010eko lehen datuek erakusten dutenez, uzkuadura indartu egin da berriro eraikuntzaren sektorean, eta ez dirudi hasitako beheranzko ibilbidea aldatzeko aukerarik dagoenik: $-\% 5,4$ lehen hiruhilekoan,



-% 5,5 bigarrenen, eta 2010 urtea -% 4,7ko hazkunde-tasarekin itxiko dela aurreikusi da.

Gainerako ekoizpen-sektoreei erreparatzen bazaie, industria-sektorearen jarduerak ezagututako murrizketa handia azpimarratu behar da: -% 12,7ko uzkurdua ezagutu du BEGek, 2008an -% 0,6ko tasari eustea lortu zuen bitartean. Haatik, 2010eko datuak ikusita, sektoreak egoera hobetzea lortu duela esan daiteke: 2010eko bigarren hiruhilekoan tasa positiboa erregistratu da (+% 0,9) eta urtea kopuru positiboekin itxiko dela aurreikusi da (+% 0,5).

Zerbitzuen sektorea da 2008an saldo positiboa lortu zuen ekoizpen-sektore bakarra eta 2009an aurreko urteko kopuruei eutsi zien, murrizketa -% 0,2koa soilik izan baitzen.


Eskariaren ikuspegitik, 2008an etxebizitzaren barne-eskariaren dinamismoa nabarmenki moteldu zen; 2009an, herri-administrazioen gastuek izan ezik, barne-eskariaren osagai guztiek uzkurdua ezagutu zuten, nahiz eta urtearen azken hiruhilekoan agregatu guztiek lortu zuten beherakada zerbait arintzea.

Urte amaieran hobekuntza txiki bat ezagutu bazen ere, kontsumo pribatuak erregistratutako murrizketa handiak eta inbertsioaren narriadurak atzerapena ekarri zuten euskal ekonomiara eta, ondorioz, bost hilabetez jarraian barne-eskariak ekarpen negatiboa egin zion euskal BPGd-ren hazkunderari. Bestalde, nazioartean bizitako beherakadak murrizketa nabarmena ekarri zuen euskal esportazioetara zein inportazioetara, nahiz eta kanpo-saldoak ekarpen positibo txikia egin zion hazkunderari.

2.1. taula BEGren bilakaera sektoreka (gaur egungo prezioak). EAE. 1997-2009

	Nekazaritza eta Arrantza	Industria	Eraikuntzan	Zerbitzuak	BEG guztira pm
1998	579.525	10.220.287	2.027.879	19.763.978	32.591.669
1999	621.469	10.950.546	2.233.170	21.310.783	35.115.968
2000	527.868	11.822.884	2.506.451	22.552.897	37.410.100
2001	493.320	12.278.705	2.920.616	24.003.580	39.696.221
2002	511.274	12.568.266	3.241.856	25.461.098	41.782.494
2003	497.633	12.955.181	3.788.476	27.087.758	44.329.048
2004	515.804	14.151.135	4.167.357	28.914.702	47.748.998
2005	489.302	15.238.236	4.557.681	30.825.099	51.110.318
2006	480.432	16.115.793	4.941.661	33.365.195	54.903.081
2007	489.668	16.999.271	5.815.952	36.044.743	59.349.634
2008	435.463	17.193.284	5.685.699	38.392.073	61.706.519
2009	364.649	14.364.261	5.421.531	39.106.953	59.237.394


Iturria: Eustat, Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak.



Eraikuntzaren sektorea bakarrik aztertuz, BPGd-ra % 9,2ko ekarpena egin diola ikus daiteke, hau da, 2008an erakutsitako partaidetza bera. Modu berean, sektoreak azken urteetan uzkurdura ezagutu badu ere, eraikuntzak BPGd-ra egindako ekarpena duela bost edo hamar urte egindakoa baino altuagoa dela baieztatu da.

Ekoi-zein-sektoreek erakutsitako bilakaera desberdina izan da batetik bestera: gora egin du zerbitzuen sektorearen partaidetzak (% 66, eta % 64 izan zen 2008an) eta uzkurdura ezagutu du industria-sektorearenak (% 24 2009an eta % 28 2008an).

2.2. grafikoa Sektoreek euskal BPGd-ra egindako ekarpena



Iturria: Eustat, Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak.

2.2. taula Balio erantsi gordina eraikuntza-sektorearen merkatuko prezioetan. EAE. 1997-2009

	BEG	Industriako BEGren %	Guztizko BEGren %
1998	2.027.879	19,8	6,2
1999	2.233.170	20,4	6,4
2000	2.506.451	21,2	6,7
2001	2.920.616	23,8	7,4
2002	3.241.856	25,8	7,8
2003	3.788.476	29,2	8,5
2004	4.167.357	29,4	8,7
2005	4.557.681	29,9	8,9
2006	4.941.661	30,7	9,0
2007	5.815.952	34,2	9,8
2008	5.685.699	33,1	9,2
2009	5.421.531	37,7	9,2

Iturria: Eustat, Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak.

Lurraldekako azterketa bat eginez, eraikuntzaren sektoreak Bizkaian lortu duen pisua nabarmenki handiagoa da, lurraldeko BPGd-ren % 10,4ra iritsi delarik; bien bitartean, Araban eta Gipuzkoan dezente baxuagoa da ekarpena, % 8 eta % 7,7, hurrenez hurren. Bilakaerari erreparatuz, hiru lurralde historikoetan gutxitu da eraikuntza-jarduera eta



Arabian erregistratu da uzkurduarik handiena (-% 5,9 2008rekiko). Eraikuntzaren BEGren uzkurdura Bizkaian -% 3,8koa izan da eta -% 1,8koa, berriz, Gipuzkoan.

EAEko eraikuntzako BEGek lortu duen banaketa geografikoak erakusten du Bizkaiak partaidetza handia izan duela ekoizpenean, izan ere, % 58ko ekarpena egin zuen guztizkora. Gipuzkoak eta Arabak partaidetza txikiagoak lortu dituzte (% 27,5 eta % 14, hurrenez hurren).

Eraikuntza-sektoreko BEGek lurraldeka duen banaketa (gaur egungo prezioak) 1997-2007


	EAE		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	BEGpm (m. eurotan)"	Guztizkoaren gaineko %	BEGpm (m. eurotan)"	Guztizkoaren gaineko %	BEGpm (m. eurotan)"	Guztizkoaren gaineko %	BEGpm (m. eurotan)"	Guztizkoaren gaineko %
	2.027.879	6,2	290.536	5,3	558.321	5,2	1.179.022	7,3
	2.233.170	6,4	318.627	5,4	596.567	5,1	1.317.976	7,5
	2.506.451	6,7	365.535	5,8	657.083	5,3	1.483.833	8,0
	2.920.615	7,4	425.122	6,5	775.123	5,8	1.720.370	8,7
	3.241.857	7,8	465.275	6,7	835.152	6,0	1.941.430	9,3
	3.788.476	8,5	562.114	7,7	957.770	6,5	2.268.592	10,2
	4.167.358	8,7	596.999	7,3	1.072.859	6,9	2.497.500	10,4
	4.557.681	8,9	667.355	7,7	1.177.670	7,1	2.712.656	10,5
	4.941.661	9,0	724.458	7,9	1.367.632	7,5	2.849.571	10,4
	5.815.952	9,8	844.754	8,6	1.554.450	7,9	3.416.748	11,4
	5.685.699	9,2	832.048	8,1	1.534.972	7,6	3.318.679	10,6
	5.421.531	9,2	769.173	8,0	1.490.771	7,7	3.161.587	10,4
ko arekiko	100,0		14,2		27,5		58,3	

ustat, Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak.

2.4. taula Sektoraren urteko hazkunde-tasak kopuru errealetan. EAE eta lurralde historikoak. 1998-2009

	EAE		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	BEG Eraik.	BPGd	BEG Eraik.	BPGd	BEG Eraik.	BPGd	BEG Eraik.	BPGd
1998	4,8	5,9	7,2	7,3	5,9	6,1	3,8	4,8
1999	5,5	4,8	4,9	4,0	2,2	4,5	7,2	5,1
2000	7,7	5,2	10,1	5,6	5,7	5,3	8,1	5,1
2001	9,2	3,3	8,7	2,5	10,5	4,0	8,7	3,0
2002	5,2	2,4	3,7	2,7	2,2	1,8	7,0	2,6
2003	4,9	3,1	8,4	2,6	2,8	2,5	5,0	3,7
2004	4,4	3,7	0,3	7,0	6,4	2,7	4,6	3,2
2005	4,7	4,0	3,5	3,8	5,8	3,3	4,5	4,5
2006	4,2	4,4	4,3	3,4	6,5	4,9	3,1	4,3
2007	11,3	4,2	10,5	3,4	8,9	4,3	12,6	4,5
2008	-5,8	1,3	-5,1	2,1	-5,2	0,6	-6,3	1,5
2009 (a)	-3,6	-3,8	-5,9	-5,4	-1,8	-3,7	-3,8	-3,3

Iturria: Eustat, Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak.



2.2. Enplegua eraikuntza-sektorean


2.2.1. Lanean ari den biztanleria eta lurraldekako banaketa

EAE n 2009an 77.800 pertsonak lan egiten zuten eraikuntzaren sektorean, Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkestaren (BJSI) arabera, hau da, EAEko enpleguaren guztizkoaren % 8,2, eta proportzio hori azken urteetan lortutakoa baino zerbait baxuagoa da.

Bilakaerari erreparatuz, eraikuntzaren sektoreko enpleguak % 6,2ko uzkurdua ezagutu du, 2008an erregistratutako bolumenarekiko. Uzkurdua horrek sektoreko jarduera ekonomikoan antzemandakoa gainditzen du (-% 3,8). 2010eko datuek (BJSI 2. hiruhilekoa) sektoreko enpleguak ezagututako uzkurdua baieztatzen dute, eta 73.000 dira sektorean lan egiten duten pertsonak.

Datuak alderatuz, beste ekoizpen-sektoreetan uzkurdua handiagoa ezagutu dela baieztatu daiteke, hala nola industriaren sektorean –enpleguak -% 10,7ko uzkurdua ezagutu zuen, BJSIren arabera- edo lehen sektorean -2009an % 27 gutxiago dira bertan lan egiten duten pertsonak-. Bestalde, zerbitzuen sektoreak enplegu-mailari eutsi dio azken urtean, aurreko urteko antzeko bolumena erregistratu duelarik.


2.3. grafikoa Eraikuntzan ekoizpenaren eta enpleguaren bilakaera. 2003-2009.



* BEG: Balio Erantsi Gordina. (a): aurreratutako datuak.

Iturria: Eustat. Hiru hileko Kontu Ekonomikoak. Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkesta (BJSI). Bertan landua

Lurraldekako azterketari dagokionez, datuek garbi erakusten dute eraikuntzaren sektoreko euskal enpleguaren erdia baino gehiago Bizkaian dagoela (% 56, 43.700 enplegu); % 31 Gipuzkoak bereganatu du (24.300 enplegatu) eta Arabak lortu du gainerako % 13. Lurraldean lan egiten duten biztanleen gaineko pisu erlatiboari



dagokionez, Bizkaian lortu den ratioa (% 8,8), Gipuzkoan (% 7,8) zein Araban (% 6,8) lortutakoa baino altuagoa dela baieztatu da.

Bilakaerari erreparatzen bazaio, berriz, azken urtean enpleguak beherakada handiagoa ezagutu du Gipuzkoan: eraikuntzan lan egiten zuten pertsonen kopuruak % 10,7ko beherakada ezagutu du, 2008ko datuekin alderatuz. Araban eta Bizkaian, berriz, -% 6,7 eta -% 3,5 izan dira beherakadak, hurrenez hurren.


2.5. taula Eraikuntza-sektorean lan egiten duen biztanleriaren lurraldekako banaketa*. 2002-2009.

	EAE		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	Okupat.	Sektore guztien gaineko %	Okupat.	Sektore guztien gaineko %	Okupat.	Sektore guztien gaineko %	Okupat.	Sektore guztien gaineko %
2002	83.200	9,2	8.800	6,5	25.400	8,4	48.900	10,6
2003	87.400	9,5	11.600	8,3	26.300	8,5	49.500	10,6
2004	85.900	9,2	9.600	6,8	26.600	8,6	49.700	10,4
2005	83.000	8,8	12.600	8,8	26.600	8,4	43.800	9,0
2006	81.200	8,4	11.900	8,2	24.200	7,5	45.100	9,2
2007	84.600	8,7	10.600	7,2	26.100	8,0	47.900	9,5
2008	82.900	8,4	10.500	7,0	27.200	8,3	45.300	8,9
2009	77.800	8,2	9.800	6,8	24.300	7,8	43.700	8,8
% 2009	100		12,6		31,2		56,2	

(*) urteko batezbestekoak

Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkesta (BJSI).

2.4. grafikoa Eraikuntzaren sektoreko enpleguaren bilakaera lurralde historikoka. 2003-2009.




* BEG: Balio Erantsi Gordina. (a): aurreratutako datuak.

Iturria: Eustat. Hiru hileko Kontu Ekonomikoak. Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkesta (BJSI). Bertan landua


2.2.2. Enpleguaren ezaugarri nagusiak

Gizonezkoen agerpen altua azpimarratu behar da eraikuntzaren sektorearen ezaugarrien artean. Hain zuzen ere, 2009an eraikuntzaren sektorean enplegatutako



biztanleriari erreparatzen bazaio, % 88 gizonezkoak ziren eta % 12 emakumezkoak, eta EAEn lan egiten duten biztanleen guztizkotik % 56 dira gizonezkoak eta % 44 emakumezkoak. Generoa kontuan hartuta gizonen eta emakumeen portzentajeen artean alde handia egonik ere, azken urteetan areagotu egin da emakumeek eraikuntzaren sektorean duten agerpena: % 6 1996an eta % 8,4 2004an.

2.5. grafikoa Eraikuntzan lan egiten duten biztanleak sexuaren arabera. 2009




Iturria: EUSTAT, Ekonomia Jardueren Gidazerrenda, 2009.

Eraikuntzaren sektorearen baitan garrantzi handia eman behar zaio, bestalde, jarduerasegmentu honek erregistratzen duen ezbehar kopuru altuari. Izan ere, kopuru erlatiboak edo jazoeren araberako ezbehar kopurua (lan-jardunaldian ezbeharra izan eta baja hartu behar izan duten pertsonen eta sektoreko batezbesteko okupatuen arteko zatidura) erreferentziazat hartuta, 2009an ezbehar kopuruaren protagonista nagusia eraikuntza-sektorea izan da berriz ere.

Zehazkiago, 2009an ezbehar kopuruak erregistratutako batezbestekoari erreparatzen bazaio, 1.000 enplegaturen artetik 80,6 pertsonak izan dute ezbehar bat, eta ratio horrek industria-sektoreak erregistratutakoa (57,7) eta zerbitzuen sektoreak erregistratutakoa (23,8) gainditzen du. Bien bitartean, lehen sektorean erregistratutako kopuruak eraikuntzaren segmentuan erregistratutakoen parean geratu dira oraingoan.

Bilakaerari erreparatuz, laneko baja eragin duen ezbehar kopuruak behera egin du, oro har, sektore guztietan, lehen sektorean izan ezik. Azken horretan, 2009an laneko ezbehar-tasaren protagonista nagusia izaera pasa da. Modu berean, eraikuntzako



ezbehar kopuruak ezagutu duen uzkurdua industriakoak ezagututakoa baino dezente txikiagoa da.


2.6 taula Laneko ezbehar-tasa. EAE, 2004-2009

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Eraikuntza						
Ezbeharrak	8.480	9.027	8.709	7.963	7.659	6.267
Lanean ari diren bizt.	85.900	83.000	81.200	84.600	82.900	77.800
Ezbeharrak/ 1000 langileekiko	98,7	108,7	107,3	94,1	92,4	80,6
Industria						
Ezbeharrak	17.651	19.198	18.686	17.956	18.327	12.991
Lanean ari diren bizt.	250.800	247.900	246.500	248.900	252.300	225.300
Ezbeharrak/ 1000 langileekiko	70,4	77,4	75,8	72,1	72,6	57,7
Sektore guztiak						
Ezbeharrak	43.857	47.881	46.730	43.934	44.437	35.184
Lanean ari diren bizt.	930.600	945.200	961.000	977.400	987.100	951.500
Ezbeharrak/ 1000 langileekiko	47,1	50,7	48,6	45,0	45,0	37,0


Iturria: EAEko Lan Harremanen Kontseilua, Urteko Txosten Soziolaborala eta EUSTAT, Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkesta, BJSI.

Ildo horretan, 2005ean Sailak eta Visesak sektorean agerpen handien duten sindikatuekin lortutako konpromisoa azpimarratu behar da. Sailak eta VISESAk zuzenean sustatutako eraikuntza-lanetan lan-baldintza ezin hobekak lortzeko irizpideak eta jarduerak ezarri dira hitzarmen baten bitartez. Ekimen horrekin emaitza oso positiboak lortu dira, eta obra publikoetako ezbehar kopurua nabarmenki murrizteko lagungarria izan da, gainera. Zehazki, Osalanek emandako datuen arabera (ikus 2.6. grafikoa) laneko ezbehar kopurua dezente baxuagoa da Sailaren eta Visesaren obretan, obren guztizkoan baino.

2.6. grafikoa Laneko ezbehar kopuruaren eraginaren indizea eraikuntza-sektorean



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.



2.3. Eraikuntzako azpisektoreak


2.3.1. Ekoizpenaren bilakaera azpisektoreka

Eraikuntzaren sektorean bi azpisektore nagusitan biltzen dira: obra zibilarena eta eraikuntzarena. Lehenengo azpisektoreak azpiegituren eraikuntza barne hartzen du, errepideak, portuak, obra hidraulikoak, eta abar; kasu horretan, sektore publikoa da beti bezeroa; eraikuntzaren azpisektoreak, berriz, etxebizitzaren eta bestelako eraikinen eraikuntza barne hartzen du eta bezeroa publikoa zein pribatua izan ohi da.

Eustatek landutako Eraikuntzaren Koiunturako Indizetik hartutako informazioari helduta, sektoreko ekoizpenak murrizketa handia ezagutu du 2009an eta 1997tik lehen aldiz ezagutu du estatistika-serieak horrelako beherakada handia (-% 12,5). Beherakada hori are nabarmenagoa izan da eraikuntzaren kasuan (-% 15,7); zentzu horretan, aurreko urtean jada murrizten hasi zela aipatu behar da.

Bestalde, obra zibilean erregistratutako ekoizpenak lehen aldiz ezagutu du beherakada hamarkada osoan (-% 6,4), baina ez da eraikuntzaren murrizketa bezain nabarmena izan.

Datu horiek garbi islatzen dute eraikuntzaren sektoreak bizi izan duen urte zaila, izan ere, 2008an obra zibilaren dinamismoari esker eraikuntzak ezagututako beherakada orekatzea lortu bazen ere, 2009an beherakada orokorra izan da. 2010erako datuen arabera, hirugarren hiruhilekoan joera hori indartu egingo da: EKI orokorrak -% 24,2ko murrizketa izango du, eta bereziki nabarmena izango da obra zibilaren azpisektoreak ezagutuko duen murrizketa (-% 18,8).




2.7. taula Eraikuntza-sektorearen ekoizpenaren bilakaera, azpisektoreka. EAE, 1997-2009

(Urteko aldaketaren %)	AZPISEKTOREAK		GUZTIRA
	Eraikuntza	Obra Zibila	
1997	3,2	11,0	5,4
1998	11,1	10,9	11,0
1999	8,4	9,1	8,7
2000	15,7	14,7	15,4
2001	8,4	33,4	15,4
2002	5,3	7,5	5,9
2003	6,8	4,0	6,3
2004	7,5	3,8	6,5
2005	8,9	6,1	8,2
2006	11,4	7,8	10,2
2007	5,9	10,2	7,2
2008	-1,3	9,5	2,1
2009	-15,7	-6,4	-12,5

Iturria: EUSTAT, Eraikuntzaren Koiunturako Indizea

2.7. grafikoa Eraikuntza-sektorearen ekoizpenaren bilakaera, azpisektoreka. EAE, 1997-2009




Iturria: EUSTAT, Eraikuntzaren Koiunturako Indizea

2.3.2. Etxebizitzen eraikuntza

Bizitegi-eraikuntzaren azterketari helduta, 2009an eraikitzen hasitako etxebizitzaren guztizko bolumena (7.051 etxebizitza) 1997tik estatistika-serie osoko kopururik baxuena izan zela aipatu behar da. Aurreko urtearekiko -% 43ko uzkurdua ezagutu zen eta beherakada handi hori segmentu librean zein sektore babestuan baieztatu da.

Zehazkiago, 2009an 3.855 etxebizitza librearen eraikuntzari ekin zitzaion (-% 38 2008rekiko), eta babes publikoko 3.196 etxebizitzaren eraikuntzari ekin zitzaion (-% 49 2008rekiko). Beherakada horiek bat datoz 2008an hasitako murrizketarekin.




Eraikitzen amaitutako etxebizitzei dagokienez (13.450 unitate 2009an), oraindik ez da eraikitzen hasitako etxebizitzaren kopuruak ezagutu duen murrizketa handia gertatu, eraikitzen amaitzeko epeak atzeratu egin baitira baina, hala ere, aldaketa-tasa negatiboa izan zela baieztatu zen (-% 4,5 2008rekiko), bai segmentu babestuan (-% 6,6) bai segmentu librean (-% 3,3).

2010eko lehen sei hilekoaren datuek aipatutako joerak baieztatu egin dituzte: 2.700 etxebizitzaren eraikuntzari ekin zaio bakarrik eta 6.700 soilik bukatu dira eraikitzen. Bi kasuetan, etxebizitzaren erdia inguru babes publikoko etxebizitzak dira.


2.8 taula Eraikitzen hasitako eta amaitutako etxebizitzak sustapen motaren arabera. EAE. 1997-2009

	HASITAKOAK			AMAITUTAKOAK		
	Bab. pub.	Libreak	Guztira	Bab. pub.	Libreak	Guztira
1997	2.460	9.592	12.052	2.064	8.799	10.863
1998	2.916	13.502	16.418	2.566	8.555	11.121
1999	3.626	15.422	19.048	2.124	11.633	13.757
2000	2.733	12.115	14.848	1.796	13.266	15.062
2001	4.284	11.194	15.478	2.647	14.091	16.738
2002	5.054	9.692	14.746	3.129	14.974	18.103
2003	6.625	13.626	20.251	3.752	7.962	11.714
2004	4.427	11.794	16.221	3.647	10.588	14.235
2005	4.656	11.987	16.643	4.040	11.522	15.562
2006	5.339	9.815	15.154	4.829	9.794	14.623
2007	7.310	11.269	18.579	4.631	10.793	15.424
2008	6.259	6.203	12.462	5.000	9.083	14.083
2009	3.196	3.855	7.051	4.672	8.782	13.454
% Δ 09/08	-48,9	-37,9	-43,4	-6,6	-3,3	-4,5
% guztira 09	45,3	54,7	100,0	34,7	65,3	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzak, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila eta Etxebizitza Ministerioa.



2.8. grafikoa Eraikitzen hasitako etxebizitzaren bilakaera, sustapen motaren arabera. EAE. 1997-2009



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.


Lurraldekako azterketa eginez, Bizkaiaren azalpena da murrizketarik handiena eraikitzeko hasitako etxebizitzaren bolumenari dagokionez (-% 52), Araban ondoren (-% 46) eta Gipuzkoan azkenik (-% 33). 2009an eraikitzeko hasitako 7.051 etxebizitzaren lurraldekako banaketa, honakoa izan zen: Gipuzkoak bereganatu zituen % 43 (3.002 etxebizitza), Arabak % 30 (2.121 etxebizitza) eta Bizkaiak gainerako % 27 (1.928 etxebizitza). Arabari dagokionez, azken lau urteetan bertan eraikitako etxebizitzaren erdia babes publikoko modalitate bateko etxebizitzak direla aipatu behar da.

2.9. taula Eraikitzeko hasitako eta amaitutako etxebizitzak lurralde historikokoak. 1997-2009

	Hasitako etxebizitzak				Amaitutako etxebizitzak			
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE
1997	2.634	4.028	5.390	12.052	1.892	5.888	3.083	10.863
1998	2.603	6.918	6.897	16.418	1.150	4.291	5.680	11.121
1999	4.222	5.320	9.435	18.977	3.015	5.210	5.532	13.757
2000	3.393	5.171	6.324	14.888	2.862	5.980	6.220	15.062
2001	2.276	4.568	8.634	15.478	3.765	5.579	7.394	16.738
2002	3.877	3.801	7.068	14.746	3.688	5.131	9.284	18.103
2003	5.348	7.290	7.613	20.251	2.109	3.778	5.827	11.714
2004	3.484	5.833	6.904	16.221	3.500	3.679	7.056	14.235
2005	5.451	5.956	5.236	16.643	3.490	5.750	6.322	15.562
2006	5.864	4.213	5.077	15.154	3.279	5.450	5.894	14.623
2007	6.174	6.041	6.364	18.579	4.913	4.379	6.132	15.424
2008	3.951	4.465	4.046	12.462	4.843	4.890	4.350	14.083
2009	2.121	3.002	1.928	7.051	4.677	4.184	4.593	13.454
% □ 09/08	-46,3	-32,8	-52,3	-43,4	-3,4	-14,4	5,6	-4,5

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila eta Etxebizitza Ministerioa.

Higiezinaren merkatuko jarduerarekin lotutako beste adierazle batzuei helduta, hala nola formalizatu diren hipotekak, 2007tik formalizatutako hipoteka kopurua murrizten ari




dela ikus daiteke, hau da, hipoteka duten etxebizitzaren salerosketa-erritmoaren moteltzea eraikuntza-erritmoaren moteltzea baino lehen hasi zen.

Hain zuzen ere, EAE osoan 2009an formalizatutako hipoteken bolumena 27.491 unitatera iritsi zen, hortaz, 2008ko kopuruekiko % 14ko uzkurdua ezagutu zen. Bestalde, 2009an formalizatutako hipoteken batezbesteko zenbatekoa 144.300 eurora iritsi zen, hau da, 2008ko batezbestekoa baino % 12 gutxiago.

2010eko lehen datuei erreparatzen bazaie, urteko lehen erdian formalizatutako hipotekak 2009ko aldi berdinetan formalizatutakoak baino % 20 gehiago dira, hortaz, badirudi orain arte ezagututako joera aldatzen hasi dela. Etxebizitzaren eskualdatzeen datuek antzeko emaitza erakusten dute. Egoera azaltzeko ematen diren arrazoiaren artean, honako hauek aipa daitezke: uztailetik aurrera BEZak ezagutu duen hazkundea, edo etxebizitza erosteagatik zerga-murrizketak nabarmenki mugatzeko iragarpenak (nahiz eta, azkenean, EAEn ez da horrelakorik ezartzea aurreikusi).

2.9. grafikoa EAEen formalizatutako hipoteken bilakaera lurralde historikoka. 1996-2009.




Iturria: EIN. Hipotekei buruzko Estatistika.

2.3.3. Etxebizitzak birgaitzea

Etxebizitza-erakinak handitzeko eta/edo birgaitzeko jarduerari dagokienez, 2009an murrizketa nabarmena izan dela baieztatu da, nola emandako baimenen kasuan hala gauzatzeko aurrekontuen kasuan.

Gauzak horrela, EAEn 2009an etxebizitza-erakinak handitzeko eta/edo birgaitzeko emandako obra-baimenak 967 izan ziren (-% 14,5), eta obra horiek gauzatzeko guztizko aurrekontua 102,6 milioi eurora iritsi zen (-% 8,2 2008an emandakoarekiko).



2.10. taula Etxebizitzak handitzeko eta/edo birgaitzeko jarduera

(lan-baimenak)

	Eraikinak	Obrak gauzatzeko aurrekontua (mila eurotan)
2000	812	58.548,4
2001	989	66.715,7
2002	847	54.872,1
2003	868	69.457,7
2004	898	79.477,2
2005	957	94.300,4
2006	1.208	114.671,1
2007	1.328	129.504,5
2008	1.131	111.790,0
2009	967	102.624,0
% Δ 09/08	-14,5	-8,2

Iturria: Sustapen Ministerioa, Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala

Bestetik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak 2009an 20.500 etxebizitza baino gehiago birgaitzeko dirulaguntzak eman zituen, 22,5 milioi euroko guztizko zenbatekoagatik. Datu horiek hazkunde nabarmena erakusten dute aurreko urtean erregistratutako bolumenekin alderatuta, eta Birgaikuntzarako Laguntzen Aparteko Planari esker lortu da gorakada. Izan ere, 2009ko ekainean Sailak abian jarri zuen aipatutako plana, merkatua sustatzeko eta familiei beren etxebizitzak birgaitzen laguntzeko.

Zehazki, 2009an emandako laguntzei esker 2008an baino % 28 etxebizitza gehiago birgaitu ziren, eta laguntza horien guztizko kopurua 2008an kontzeptu beragatik emandako kopurua baino % 54 gehiago izan zen.

2.11. taula Etxebizitzak birgaitzeko Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntzak. EAE. 2003-2009

	Birgaitze isolatua		Birgaitze integratua		Guztira	
	Etxebizitza kop.	M. eurotan	Etxebizitza kop.	M. eurotan	Etxebizitza kop.	M. eurotan
2003	9.813	4,1	1.346	1,8	11.159	5,9
2004	20.616	11,4	3.298	3,7	23.914	15,1
2005	13.583	12,4	1.888	4,1	15.471	16,5
2006	15.866	11,3	2.033	3,8	17.899	15,1
2007	15.351	11,3	1.506	2,8	16.857	14,1
2008	14.379	11,5	1.648	3,1	16.027	14,6
2009	18.646	18,6	1.888	3,9	20.534	22,5
% □ 09/08	29,7	61,7	14,6	25,8	28,1	54,1

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Salla eta Etxebizitza Ministerioa.



2.3.4. Obra publikoaren eskaintza ofiziala

Eskaintza ofizialaren jarduera adierazle oso interesgarria da, Herri Administrazioetik egingo den lan-eskariari aurre hartzeko aukera ematen baitu, neurri batean. SEOPANek emandako informazioari erreparatuz, EAE osoan 2009an egindako eskaintzaren bolumena 2.747 milioi eurora iritsi zen, hau da, hazkunde nabarmena lortu zen, aurreko urtean ezagututako uzkurdura kontuan hartuta. Zehazkiago, 2009an guztira eskainitako bolumena 2008an eskainitakoa baino % 16 gehiago izan zen.

Administrazioaren arabera, guztira eskainitako zenbatekotik % 59 Tokiko Administrazioak eskaini zuen (1.632 milioi euro); Eusko Jaurlaritzak eskainitako bolumenaren % 31 jarri zuen (846 milioi) eta gainerako % 10 Estatuko Administrazioak jarri zuen (269 milioi euro). Banaketa hori eta 2008an erregistratutakoa antzekoak dira.

2.12. taula Eraikuntza eta herri-lanak EAEn. Eskaintza ofiziala erakundeka. 2000-2009


(milioi eurotan)

URTEAK (*)	Estatuko Admin.	Eusko Jaurlaritzak	Tokiko Admin.	Guztira
2000	122,6	231,4	782,2	1.136,2
2001	132,0	182,2	786,5	1.100,7
2002	103,5	203,9	909,5	1.216,9
2003	81,4	144,4	805,2	1.031,0
2004	124,6	373,9	1.135,3	1.633,8
2005	158,7	324,5	1.337,9	1.821,1
2006	623,6	303,3	2.334,1	3.261,0
2007	584,5	570,2	1.795,5	2.950,2
2008	205,2	767,2	1.390,1	2.362,4
2009	269,4	846,4	1.631,7	2.747,5
% Δ 09/08	31,3	10,3	17,4	16,3
% GUZTIRA 09	9,8	30,8	59,4	100,0

Iturria: SEOPAN.


Bilakaera aztertuz, hiru herri-administrazioek egindako eskaintza areagotu egin dela ikus daiteke. Hain zuzen ere, Tokiko Administrazioak eskainitako zenbatekoa % 17 areagotu da; Administrazio Autonomikoak egindako eskaintza % 10; eta Estatuko Administrazioaren kasuan lortu da hazkunderik handiena kopuru erlatiboetan, % 31ko portzentajearekin.

Eusko Jaurlaritzak egindako eskaintzari erreparatuz, azken lau urteetan eskainitako guztizko bolumena pixkanaka areagotzen joan dela baieztatu daiteke. Horrela, 2009ko guztizko zenbatekoak 2,8 aldiz gainditzen du 2006an eskainitakoa. Tokiko Administrazioaren kasuan, aitzitik, nahiz eta berak bereganatzen duen eskaintza publikoaren bolumen handiena, eta 2009an hobera egin duen, eskaintzaren guztizko



zenbatekoa nabarmenki murriztu du, 2006an erregistratutako maximoa kontuan hartuta.


2.10. grafikoa Eskaintza ofizialaren bilakaera EAEn. Herri-administrazioak. 1997-2009




Iturria: Seopan.

2009an eskainitako obra motari erreparatuz, obra zibilak bereganatu du eskaintza publikoaren zati handiena (% 61, 1.675 milioi euro), eta eraikuntza-jarduerak bereganatu dute, berriz, gainerako % 39 (1.073 milioi euro). Eskainitako obra motaren azterketa sakonago bat eginez, garraioarekin lotutako jarduerak eskaintza publikoaren zati handiena bereganatu dutela ikus daitezke (guztizkoaren % 30, 814 milioi euro), eta ondoren daude gizarte-ekipamendua (% 20, 537 milioi euro) eta urbanizazio-obrak (% 19, 509 milioi euro).

Hala ere, bilakaeraren ikuspegitik, azken hiru urteetan garraio-obretara zuzendutako zenbatekoa pixkanaka murrizten joan dela erakusten dute datuek; aldi berean, beste kategoriatzat, urbanizazio-obretan edo obra hidraulikoetan, adibidez, hazkundeak erregistratu direla baieztatzen dute datu berdinek.




2.11. grafikoa Eskaintza ofiziala obra motaren arabera. EAE. 2006-2009.




Iturria: SEOPAN.

Obra motaren arabera egindako eskaintza publikoetan Eusko Jaurlaritzak izandako partaidetzari dagokionez, administrazio autonomikoak etxebizitzaren eraikuntzara egindako ekarpen handia baieztatzen da, eskaintza publikoaren guztizkotik % 66 bereganatzen duelarik kontzeptu horregatik. Gainerako eraikuntzetan duen agerpena askoz baxuagoa da, tokiko administrazioek protagonismo handiagoa baitute. Obra zibilari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak egindako eskaintza 2009an egindako eskaintza orokorraren heren batera iritsi zen.

2.12. grafikoa Eusko Jaurlaritzak eskaintza ofizialaren guztizkoan duen agerpena obra motaren arabera. 2005-2009.



Iturria: SEOPAN.



2.4. Eraikuntza-sektoreko kostuen bilakaera

Eraikuntzaren sektoreko kostuek ez dute aldaketa esanguratsurik ezagutu azken urtean. Eraikuntzako kostuen indizeari erreparaturaz, duela urtebete erregistratutako balioaren antzekoa erregistratu da oraingoan: 116,3 puntu 2009an eta 116,5 puntu 2008an. Dena den, kostu horien osagai desberdinak aztertzen badira, eskulanak sortutako kostuak areagotu direla baieztatu daiteke (+% 2,4) eta, aldi berean, lehengaien kostuak murriztu direla ikus daiteke (-% 0,9).


Eraikuntzako azpisektoreei dagokienez, obra zibilean zertxobait gutxitu dira kostuak (-% 3 2008rekiko), eta eraikuntzan, aitzitik, zertxobait gehitu dira (+% 0,7). Eraitza horrek erakusten du azken urteetan lehen aldiz lortu dela kostuen hazkundeari eustea, urteetan hazkunde handiak gertatu ondoren.

2.13. taula Eraikuntzako kostuen indizearen bilakaera, azpisektoreka eta osagaien arabera. EAE. 1997-2009


Oinarria 2005=100	GUZTIRA	ERAIKUNTZA	OBRA ZIBILA	LEHENGAIK	ESKULANA
1997	78,7	78,7	78,6	81,1	73,8
1998	80,2	80,4	79,4	82,4	75,6
1999	81,0	81,2	80,3	82,8	77,0
2000	83,8	83,9	83,6	85,9	79,3
2001	86,7	87,0	85,9	87,8	83,7
2002	88,6	88,8	87,8	88,7	87,0
2003	90,1	89,9	90,5	89,1	92,1
2004	95,1	95,1	95,2	94,8	95,6
2005	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
2006	104,2	104,0	104,9	103,8	105,3
2007	108,3	108,1	109,2	108,0	109,7
2008	116,5	115,8	118,9	116,5	116,6
2009	116,3	116,6	115,3	115,5	119,4

Iturria: EUSTAT, EKI: Eraikuntzako kostuen indizeak.

2.13. grafikoa Eraikuntzako kostuen indizearen bilakaera. EAE. 1997-2009



Iturria: EUSTAT, EKI: Eraikuntzako kostuen indizeak.



2.5. Eraikuntza-sektoreko eta higiezin-jardueretako establezimenduak

Atal honetan eraikuntzaren jardura eta higiezin sektorea xedetzat duen enpresa-ehunduraren karakterizazioa eta azterketa egiten da, Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionala kontuan hartuta. Zentzu horretan, kontuan hartu behar da EINek EJSN-93 sailkapena ordezkatu duela eta DIRCEren unitateak kodetzeko tresna gisa EJSN 2009 erabiltzen hasi dela. Sailkapen berria erabiltzen hastearekin batera, datuak egokitu behar izan dira pixkanaka, eta nahiz eta 2009ri dagokion informazioa kodetze bikoitzarekin eskura daitekeen oraindik, 2010etik aurrera sailkapen berria bakarrik eskuratu ahal izango da.

Horrela, EINen EJSN-93 sailkapenak ezarritako irizpideen arabera, eraikuntzaren sektoreak (EJSN 45) jardura desberdinak barne hartzen ditu, beste batzuen artean: obretako prestakuntza, eraikinen instalazioak edo eraikuntza-ekipoen alokairua. Bestalde, higieziinei dagozkien sektoreak (EJSN 70) norberaren konturako jardura inmobiliarioak nahiz hirugarrenen konturakoak hartzen ditu, baita norberaren konturako ondasun higiezin alokairua ere.

Sailkapen berriaren arabera, higiezin sustapeneko jarduerak eraikuntzaren epigrafean sartuko dira aurrerantzean, hirugarrenen konturako higiezin-jardueretatik bereiziz. 2.14. taula. taulan islatu dira bi sailkapenen arteko elkarrekotasunak.

2.14. taula Eraikuntza-sektoreko eta higiezin-jardueretako azpisektore nagusiak.

EJSN-93		EJSN 2009
45	Eraikuntza	
<i>45.1</i>	<i>OBRETAKO PRESTAKUNTZA</i>	<i>43.1</i>
<i>45.2</i>	<i>ERAIKINEN ERAIKUNTZA OROKORRA ETA INGENIARITZA ZIBILEKO OBRAK</i>	<i>41.2</i>
		<i>ERAIKINAK</i>
		<i>42. OBRA ZIBILA</i>
<i>45.3</i>	<i>ERAIKINEN ETA OBREN INSTALAZIOAK</i>	<i>43.2 / 80.20</i>
<i>45.4</i>	<i>ERAIKINEN ETA OBREN AKABERA</i>	<i>43.3</i>
<i>45.5</i>	<i>ERAIKUNTZA- ETA ERAISPEN-EKIPOEN ALOKAIRUA, LANGILEDUNA</i>	<i>43.9</i>
70	Higiezin-jarduerak	
<i>70.1.</i>	<i>HIGIEZINEN JARDUERAK, NOR BERE KABUZ</i>	
	<i>70.11. Higiezin sustapena</i>	<i>41.10</i>
	<i>70.12. Higiezin salerosketa</i>	<i>68.10</i>
<i>70.2.</i>	<i>HIGIEZINEN ALOKAIRUA, NOR BERE KABUZ</i>	<i>68.20</i>
<i>70.3.</i>	<i>HIGIEZINEN JARDUERAK, BESTERENTZAT</i>	
	<i>70.31. Higiezin Jabetzaren Agenteak</i>	<i>68.31</i>
	<i>70.32. Higiezin jabetzaren kudeaketa eta administrazioa</i>	<i>68.32 / 81.10</i>

Iturria: EIN.




2.15. taula Eraikuntzaren sektorea eta higiezinaren sustapena EJSN 2009 sailkapen berriaren arabera

EJSN-2009 kodea	
41.10	Higiezinaren sustapena
41.2	Eraikinen eraikuntza
41.21	
41.22	Bizitegikoak ez direnak
42	Obra Zibila
43.1	Eraistea eta obretako prestakuntza
43.2	Eraikinen eta obren instalazioak
43.3	Eraikinen eta obren akabera
43.9	
68.10	Ondasun higiezinaren salerosketa, nor bere kabuz
68.20	Higiezinaren alokairua, nor bere kabuz
68.3	Higiezinaren jarduerak, besterentzat
68.31	Higiezinaren Jabetzaren Agenteak
68.32	Higiezinaren jabetzaren kudeaketa eta administrazioa
80.20	
81.10	


Iturria: EIN.

Ondorengo taulatan EJSN-93 sailkapenaren arabera sektoreak duen karakterizazioa ikus daiteke, aurretik landutako txostenetan barne hartu diren datuekiko konparazioa egiten baita.

Horrela, Eustaten Ekonomia Jardueren Gidazerrendatik (EJG) hartutako datuek baieztatzen dutenez, estatistika-seriea hasi zenetik lehen aldiz murriztu da eraikuntzaren sektorean erregistratutako establezimendu kopurua eta, aldi berean, higiezinaren sektorean jarduten duten establezimenduen bolumenari eustea lortu da. 1995etik seriearen azterketa egiten bada, berriz, bi sektoreek pixkanaka ezagutu duten hazkundera ikus daiteke (hazkundera biziagoa izan da higiezinaren segmentuan), baina 2009an, ordea, eraikuntzaren sektoreko establezimendu kopuruak -% 3,8ko beherakada ezagutu du, eta higiezinaren segmentuak kopuruei eutsi die (+% 2), aurreko urteetan hazkunde esanguratsuak ezagutu eta gero.




2.14. grafikoa Eraikuntza-sektoreko eta higiezinaren sektoreko establezimendu kopuruaren bilakaera.



Iturria: EUSTAT, Ekonomia Jardueren Gidazerrenda, 1995-2009.

Kopuru absolutuei erreparatuz, eta eraikuntzaren sektoreari helduta, 2009an establezimenduen guztizko bolumena 30.340ra iritsi zen, nahiz eta sektore honek dituen ezaugarrien artetik azpimarragarrienetako bat sektorearen heterogeneotasun handia den. Esanak esan, eraikuntzaren epigrafean barne hartutako establezimenduen artetik ehuneko altu batek (% 45, 13.609) eraikinen eta obren akabera (pintura, arotzeria, beira jartzea, eta abar) zituen xedetzat; % 24k (7.211) instalazioak (elektrikoak, iturgintza, isolamenduak, eta abar) eta % 22k (6.654 establezimendu), azkenik, eraikinen eraikuntza zuten xedetzat. Modu berean, % 8 ingeniari zibilaren eta bestelako eraikuntzen azpisektoreko establezimenduak ziren eta % 2k obretako prestakuntza zuten xedetzat (erispena, lurrak prestatzea, eta abar).

Bilakaerari erreparatzen bazaio, eraikuntzaren azpisektorean nabarmendu zen gehien sektoreak ezagututako uzkurdura; horrela, eraikinen eraikuntzan jarduten zuten establezimenduen bolumenak % 10eko uzkurdura ezagutu zuen eta % 12koa izan zen, berriz, obra zibilean eta bestelako eraikuntzetan jarduten zuten establezimenduek ezagututako beherakada. Bestalde, instalazioak egiten jarduten zuten establezimenduen kopuruak % 2ko beherakada ezagutu zuen eta eraikinen akaberaren azpisektoreak, berriz, aurreko urteko bolumenari eutsi zion.



2.16. taula Eraikuntza-sektoreko establezimendu kopuruaren bilakaera azpisektoreka. EAE.


Azpisektoreak (EJSN 45)	1995	2006	2007	2008	2009	% Δ 09-08	Banaketa guztira %"	
							2008	2009
Obretako prestakuntza	217	509	574	629	619	-1,6	2,0	2,0
Eraikinen eraikuntza	1.272	5.967	6.548	7.277	6.564	-9,8	23,1	21,6
Obra zibila eta bestelako eraik.	777	1.849	2.040	2.581	2.275	-11,9	8,2	7,5
Eraikin/obra instalaz.	3.531	6.825	7.423	7.392	7.211	-2,4	23,4	23,8
Eraikin/obra akabera	7.770	11.833	13.182	13.586	13.609	0,2	43,1	44,9
Ekipoen alokairua	22	56	59	58	62	6,9	0,2	0,2
Guztira	13.589	27.039	29.826	31.523	30.340	-3,8	100,0	100,0

Iturria: EUSTAT, Ekonomia Jardueren Gidazerrenda, 1995-2009.


Eraikuntzaren sektorearen ezaugarri azpimarragarriena sektorean barne hartutako establezimenduen tamaina txikia da. 2009an erregistratutako establezimenduen % 80k gehenez ere 2 langile dituzte eta beste % 14 ez dira hamar langilera iristen. Kontrako muturrean, % 0,5ek bakarrik dituzte 50 langile edo gehiago.

Horrezaz gain, banaketa geografikoari erreparatzen bazaio, establezimenduen erdia Bizkaian daudela ikus daiteke (guztizkoaren % 49), % 36 Gipuzkoan daude eta gainerako % 14, azkenik, Araban.

2.15. grafikoa Eraikuntza-sektoreko establezimenduak enplegu-estratuen eta lurralde historikoen arabera. 2009



Iturria: EUSTAT, Ekonomia Jardueren Gidazerrenda, 2009.




Eskualdeka aztertzen badugu, higiezinaren sektoreko establezimendu gehienak hiru hiriburuen inguruan kontzentratzen direla ikusten da. Zehazkiago, Bilbo Metropolitarran kokatzen dira sektoreko establezimenduen % 37 (11.067), % 17 Donostialdean daude (5.230) eta Arabako Lautadak -Gasteiz bertan dago- bereganatzen ditu establezimenduen % 10 (3.071 establezimendu). Bestalde, Bidasoa Beherean (% 5, 1.451), Durangaldean (% 4, 1.210) eta Goierri (% 4, 1.133) eraikuntzako establezimenduen bolumen handiak erregistratzen dira.

2.17. taula Eraikuntza-sektoreko establezimenduen bilakaera eskualdeka, 1995-2009

Eskualdea	1995	2001	2009	
			Kop.	bertikalaren %
Arabako Bailarak	30	33	58	0,2
Arabako Lautada	1.563	2.105	3.071	10,1
Arabako Mendialdea	31	43	53	0,2
Arratia-Nerbioi	96	165	299	1,0
Añanako Koadrila	233	323	387	1,3
Arabako Errioxa	107	131	194	0,6
Bidasoa Beherea	568	1.066	1.451	4,8
Debarrena	336	482	513	1,7
Debagoiena	404	563	618	2,0
Donostialdea	2.517	4.317	5.230	17,2
Goierri	455	707	1.133	3,7
Tolosa	387	652	716	2,4
Urola Kosta	465	720	946	3,1
Bilbo Metropolitarra	4.983	7.508	11.067	36,5
Durangaldea	463	710	1.210	4,0
Enkartzioak	149	274	445	1,5
Gernika-Bermeo	286	458	713	2,4
Gorbeialdea	40	71	97	0,3
Markina-Ondarroa	161	210	252	0,8
Plentzia-Mungia	255	360	576	1,9
Arabakoak, zehaztu gabe	26	145	457	1,5
Bizkaikoak, zehaztu gabe	10	67	434	1,4
Gipuzkoakoak, zehaztu gabe	24	93	420	1,4
GUZTIRA	13.589	21.203	30.340	100,0

Iturria: EUSTAT, Ekonomia Jardueren Gidazerrrenda, 1995-2009.

Jarraian higiezinaren sektoreko establezimenduen azterketa egiten da, hau da, EJSN-93 ekonomia-jardueren sailkapenaren arabera 70. epigrafean barne hartutako establezimenduak aztertzen dira. Gogoan hartu behar da, EJSN 2009 sailkapen berriarekin, etxebizitzaren sustapenaren azpisektorea eraikuntzaren sektorean barne hartzen dela.



Horrela, EJSN-93 sailkapenaren arabera, 2009an 9.689 establezimendu barne hartu ziren 70. epigrafean, hau da, 2008an baino % 2 gehiago. Higiezin sektorean barne hartzen diren azpisektore desberdinei dagokienez, etxebizitzaren sustapenaren jardueraren barruan 2.875 establezimendu sailkatu ziren (guztizkoaren % 30), ondasun higiezin alokairuaren barruan 4.010 (% 41) eta higiezin jabetzako agenteen kasuan, 1.732 establezimendu (guztizkoaren % 18).


Bilakaerari erreparatu bazaio, beherakada txikiak ezagutu dira nola etxebizitzak sustatzeko establezimenduen kasuan hala higiezin jabetzako agenteen kasuan; bien bitartean, ondasun higiezin alokairuak hazten jarraitu zuen 2009an. Zentzu horretan, aipatzekoa da epigrafe honetan (70.2) barne hartutako establezimenduen datua zenbatespen moduan ulertu behar dela, izan ere, oso zaila da bereiztea berez xede honekin alokatzen diren establezimenduak eta jabeek beste jarduera baterako alokatzen dituzten establezimenduak.

2.18. taula Higiezin sektoreko establezimendu kopuruaren bilakaera azpisektoreka. EAE


Azpisektoreak (EJSN 70)	1995	2006	2007	2008	2009	% Δ 09-08	"Banaketa guztira %"	
							1995	2009
ETXEBIZITZEN SUSTAPENA	554	2.348	2.726	2.914	2.875	-1,3	39,1	29,7
HIGIEZINEN BESTELAKO SUSTAPENAK	112	479	628	674	674	0,0	7,9	7,0
HIGIEZINEN SALEROSKETA	13	104	113	119	103	-13,4	0,9	1,1
HIGIEZINEN ALOKAIRUA	127	3.095	3.462	3.735	4.010	7,4	9,0	41,4
JABETZAKO AGENTEAK	503	1.411	1.664	1.750	1.732	-1,0	35,5	17,9
KUDEAKETA-ADMINISTRAZIOA	109	252	287	302	295	-2,3	7,7	3,0
GUZTIRA	1.418	7.689	8.880	9.494	9.689	2,1	100,0	100,0

Iturria: EUSTAT, Ekonomia Jardueren Gidazerrrenda, 1995-2009.

Higiezin sektoreko establezimenduen banaketa geografikoari dagokionez, Bizkaian establezimendu ugari daudela ikus daiteke: guztizkoaren % 54 dira. Gipuzkoan daude % 39 eta Araban gainerako % 7. Aldi berean, eraikuntzaren sektoreko establezimenduekin gertatzen den moduan, hiriburuen inguruko esparru geografikoetan establezimendu asko kokatzen direla baieztatu daiteke. Horrela, Bilbo Metropolitarrak bereganatzen ditu guztizkoaren % 44 (4.215 establezimendu), Donostialdeak % 20 (1.984) eta Arabako Lautadak % 6 (571 establezimendu).



2.16. grafikoa Eraikuntza-sektoreko establezimenduak lurralde historikoaren arabera. 2009




Iturria: EUSTAT, Ekonomia Jardueren Gidazerrenda, 2009.

2.19. taula Higiezinaren sektoreko establezimenduen bilakaera eskualdeka, 1995-2009

Eskualdea	1995	2001	2009	Urteko tasa Δ 1995-2001	Urteko tasa Δ 2001-2009
Arabako Bailarak	0	2	7	--	31,3
Arabako Lautada	145	263	571	13,6	14,6
Arabako Mendialdea	0	0	3	--	--
Añanako Koadrila	14	21	40	8,3	11,3
Arabako Errioxa	4	14	37	41,7	20,5
Bidasoa Beherea	76	196	490	26,3	18,8
Debabarrena	32	88	229	29,2	20,0
Debagoiena	33	78	249	22,7	27,4
Donostialdea	355	775	1.984	19,7	19,5
Goierri	36	71	207	16,2	23,9
Tolosa	26	85	231	37,8	21,5
Urola Kosta	57	136	354	23,1	20,0
Bilbo Metropolitarra	547	1.482	4.215	28,5	23,1
Durangaldea	30	130	376	55,6	23,7
Enkartzazioak	5	19	100	46,7	53,3
Gernika-Bermeo	17	38	131	20,6	30,6
Gorbeialdea	1	9	15	133,3	8,3
Markina-Ondarroa	10	24	83	23,3	30,7
Arratia-Nerbioi	5	19	95	46,7	50,0
Plentzia-Mungia	25	73	236	32,0	27,9
Arabakoak, zehaztu gabe	0	0	9	--	--
Bizkaikoak, zehaztu gabe	0	0	0	--	--
Gipuzkoakoak, zehaztu gabe	0	0	0	--	--
GUZTIRA	1.418	3.523	9.689	24,7	21,9

Iturria: EUSTAT, Ekonomia Jardueren Gidazerrenda, 1995-2009.



2.6. Ekoizpen-makromagnitudeak

Atal honetan sektorearen ekoizpen-egituraren azterketa sakonago bat egiten da eta horretarako Eustatek emandako eraikuntzaren sektoreko makromagnitudeen informazioa eta izandako galera eta irabazien informazioa erabili da. Informazio horri esker, sektoreko ekoizpen-dinamikak eduki ditzakeen aldaketak aztertu eta industria-sektorearekin alderatzen dira.

Horrela, 2008ko ekitaldiko azken datuen arabera, eraikuntzaren sektorearen ekoizpen gordina, fabrikatik ateratzeko uneko kostuak kontuan hartuta, 20.660 milioi eurora iritsi zen. Zenbateko hori aurreko urtekoaren oso antzekoa da (20.604 milioi), baina 2006koa (16.928 milioi euro) baino askoz ere altuagoa da.


Ekoizpenaren balioaren egiturari dagokionez, tarteko kontsumoek bereganatu zuten guztizkoaren % 71,4. Tarteko kontsumoen artean sartzen dira lehengaiak eta azpikontratazioak (14.754 milioi, % 61,5%) eta kanpo-zerbitzuak (2.004 milioi, % 9,7%). Bestalde, langileen kostuak ekoizpenaren balioaren % 18 izan ziren (3.708 milioi euro) eta % 1,3, berriz, amortizazioak (265 milioi euro).

Modu horretan, sektoreak fabrikatik ateratzeko uneko ekoizpenaren prezioetan sortutako Balio Erantsi Gordina (BEG) 5.906 milioi eurokoa izan zen, hau da, ekoizpenaren balioaren % 28,6. Bestalde, ustiapenaren soberakin garbia 1.829 milioi eurora iritsi zen, hau da, fabrikatik ateratzeko uneko ekoizpenaren balioaren % 8,9.

Bilakaerari erreparatuz, ekoizpenaren guztizkoan tarteko kontsumoek duten agerpena pixkanaka areagotzen ari dela baieztatu da. Hazkunde txikia da epe laburrera aztertzen bada (% 71,4 2008an, % 70,8ren parean), baina are nabarmenagoa da 1997an osatutako egitura hartzen bada erreferentzia moduan (% 62,2 tarteko kontsumoetan).

Emaitza horiek kontuan hartuta, zera esan daiteke: eraikuntzaren sektoreko ekoizpen gordinak gora egin badu ere, ustiapenaren soberakin garbiarekiko aldea murriztuz joan da: % 13,7koa zen 1997an, % 9,7koa 2007an eta % 8,9koa 2008an.

Egin den inbertsioari dagokionez, eraikuntzaren sektorean inbertitzeko joera nabarmenki indartu zen garai batean eta 2005ean ustiapenaren soberakin garbiaren % 29ra iritsi zen, baina etapa berrian nabarmenki murriztu da inbertsioa urtetik urtera, eta 2008an ustiapenaren soberakin garbiaren % 14an kokatu da.



2.20. taula Eraikuntza-sektoreko ekonomiaren makromagnitudeak. EAE. 2007-2008

	2007	2008	(Mila eurotan)			
			Egitura (%)			
			1997	2006	2007	2008
Ekoizpen garbia fabrikatik ateratzean (1)	20.604.358	20.659.691	100,0	100,0	100,0	100,0
Bitarteko kontsumoak (2)	14.582.595	14.753.902	62,2	69,9	70,8	71,4
Lehengaiak eta azpikontratuak	12.593.631	12.709.459	52,6	60,3	61,1	61,5
Kanpoko zerbitzuak	1.988.964	2.004.443	9,6	9,5	9,7	9,7
Zergak/Dirulaguntzak (3)	222.071	103.587	0,8	0,6	1,1	0,5
Langileen kostuak (4)	3.523.195	3.708.000	20,7	18,7	17,1	17,9
Amortizazioak (5)	281.875	265.545	2,7	1,5	1,4	1,3
Ustiapenaren Soberakin Gordina (6)	1.994.622	1.828.660	13,7	9,4	9,7	8,9
BEG fabrikatik ateratzean 7 = (1-2)	6.021.763	5.905.789	37,8	30,1	29,2	28,6
	5.799.692	5.806.205	37,0	29,5	28,1	28,1
Ustiapenaren Soberakin Gordina 9 = (1-2-3-4)	2.276.497	2.098.205	16,3	10,8	11,0	10,2
Ustiapenaren Soberakin Gordina 6 = (1-2-3-4-5)	1.994.622	1.828.660	13,7	9,4	9,7	8,9
Egindako inbertsioa	336.036	255.285	16,5*	21,9*	16,8*	14,0*
Finantzaketa-gastuak	430.757	359.746	21,7*	17,3*	21,6*	19,7*


* Ustiapenaren Soberakin Gordinaren %

Iturria: EUSTAT, Eraikuntzaren sektoreko kontuak.


Industria-enpresen ekoizpen-egiturarekin alderatuz, antzekotasun asko ikus daitezke, bai eta desberdintasun interesgarriak ere. Horrela, tarteko kontsumoei dagokien proportzioa antzekoa da bi sektoreetan (% 71,4 eraikuntzan eta % 72,2 industrian), baina kanpo-zerbitzuen pisua handiagoa da industrian, % 12,9, eraikuntza baino, % 9,7. Horrezaz gain, eraikuntzaren sektoreak agerpen handiagoa du azpikontratazioei dagokienez, eta industria-sektoreak, berriz, agerpen handiagoa du lehengai dagokienez.

Bestalde, langileen kostuak pisu handiagoa du eraikuntzaren sektorean (% 17,9, eta % 14,5 industrian), eta amortizazioek garrantzi handiagoa dute industriaren sektorean (% 4, % 1,3ren parean), izan ere, industriaren sektorean egin den inbertsioa eraikuntzan egin dena baino dezente handiagoa da (ustiapenaren soberakin garbiaren % 54,5 industriaren kasuan eta % 14 eraikuntzaren sektorean).


Amaitzeko, ustiapenaren soberakin garbiak industrian duen pisu erlatiboa (% 8,2) eraikuntzan duena baino (% 8,9) baxuagoa dela aipatu behar da, batez ere kontuan hartzen bada eraikuntzaren sektorean gutxiago inbertitzeko joera dagoela, lehen esan dugun moduan.



2.17. grafikoa Eraikuntza- eta industria-sektoreetako makromagnitude ekonomikoen egituren alderaketa. 2008.



Iturria: EUSTAT, Eraikuntza eta industria sektoreko kontuak




3. ERAIKUNTZA ESPAINIAN

3.1. Garrantzi erlatiboa eta berriki izandako bilakaera

2008an Espainiako ekonomia-jarduera uzkuratzen hasi zen eta urtearen bigarren erdian hazkunde-tasa negatiboak erregistratu zituen, nahiz eta ekitaldia ixtean hazkunde-tasa positiboa zen oraindik. 2009an hazkunde-tasa negatiboak erregistratu zituen Espainiako ekonomiak, aurreko urtean hasitako uzkurdura indartzuz, eta urtea ixtean -% 3,7ko tasa orokorra erregistratu zen. Datu horiek kontuan hartuta, Espainiako ekonomia azken urteetako historiako krisialdi ekonomiko handienetakoa bizitzen ari dela esan daiteke, mundu-mailan bizi den uzkurdurarekin bat eginez. Hala ere, 2009ko bigarren zatian ekonomiaren bilakaera negatiboa zerbait moteldu zen, eta 2010ean moteltze hori baieztatu egin da; horrela, BPGd-ren hazkunde-tasa jada positiboa da lehen hiruhilekoan (+% 0,2), nahiz eta oso baxua den.


Bestalde, eraikuntzaren sektoreak aurreko urtean baino uzkurdura nabarmenagoa ezagutu zuen 2009an (-% 6,2). Zentzu horretan, zera aipatu behar da: zerbitzuen sektoreak izan ezik, ekoizpen-sektore guztiek hazkunde negatiboak erregistratu zituzten 2008an, eta hazkunde negatibo horiek areagotu egin dira 2009an. Uzkurdura handiena industriaren sektoreak ezagutu du (urteko -% 13,6).

3.1. grafikoa Eraikuntza-sektoreko urte arteko BPGd-ren eta BEGren aldaketa-tasak Espainian. 2001-2009.



Iturria: EIN, Espainiako Kontabilitate Nazionala.

Eraikuntzaren sektoreak Espainiako ekonomian garrantzi handiko papera betetzen du, eta eragile benetan garrantzitsua izan da hazkunde garaian. Modu berean, gaur egun bizi den uzkurduraren baitan kontrako eragina du tarteko produktuak hornitzen dituzten sektoreen gainean.



Eraikuntzak Espainiako ekonomian egindako ekarpena pixkanaka areagotzen joan zen 1996tik (% 6,6), 2006an % 10,8ra iritsi arte. Hala ere, eraikuntzako Balio Erantsi Gordinak azken urteetan izan duen bilakaera negatiboaren ondorioz, gutxitu egin da eraikuntzak BPGd-ren gainean duen partaidetza eta 2009an % 10ean geratu da.

3.1. taula BPGd eta eraikuntzaren sektoreko BEG merkatuko prezioen arabera. Espainia. 2003-2009

(milioi eurotan. Gaur egungo prezioak)

	BPGd	Eraikuntzako BEG	Guztizko BPGd-ren %
2003	782.929	70.265	9,0
2004	841.042	80.480	9,6
2005	908.792	93.808	10,3
2006	984.284	105.823	10,8
2007	1.052.730	111.726	10,6
2008	1.088.124	113.511	10,4
2009	1.053.914	105.522	10,0

Iturria: EIN, Espainiako Kontabilitate Nazionala

Sektoreko jarduerak ezagutu duen uzkurdurari helduta, bilakaera negatiboak 2010era arte iraun duela aipatu behar da, eta lehen hiruhilekoetan gero eta tasa negatiboagoak erregistratu dira (-% 6,5, -% 6,6 eta -% 6,8). 2010ean BPGd-ren bilakaerak hobera egingo duelako zantzuak erakutsi baditu ere, aldi berean, Espainiako eraikuntza-jardueraren hobekuntza lortzeko oraindik denbora beharko dela erakusten dute datu horiek.

Ildo beretik doaz Gobernuak egindako aurreikuspen makroekonomikoak. Horrela, 2010 ixtean Espainiako ekonomiak tasa negatiboak erregistratuko ditu, nahiz eta 2011rako egoerak hobera egingo duela aurreikusi den. Urteko lehen erdian lortutako datuek, lehen aipatutakoek, oraindik 2009an baino tasa negatiboagoak erakusten dituzte, baina badirudi egoerak hobera egingo duela. Hala ere, eraikuntzaren sektorerako egindako aurreikuspenek ez dute egoera bera islatzen eta 2010ean sektoreak izango duen hazkunde-tasa -% 7 ingurukoa izango dela diote.

3.2. taula Espainiako makroekonomiaren bilakaera eta aurreikuspenak. 2009-2011

(Aldaketa errearen %)

URTEA	BPGd	Enplegua
2009*	-3,6	-6,7
2010**	-0,3	-2,0
2011**	1,3	0,3

* Aurrerapena. ** Aurreikuspenak.

Iturria: Ekonomia Ministerioa.

Enpleguari erreparatzen bazaio, hainbat urtetan enpleguaren hazkunde-tasek gora egin ondoren, ziklo-aldaketarekin batera enplegu asko galdu da: 2008an % 10,9ko murrizketa izan bazen, azken urtean % 23koa izan da murrizketa.



Horrela, kopuru absolutuei erreparatuz, 2009an eraikuntzaren sektoreko enpleguak 1,89 milioi enplegatu barne hartzen zituen, batezbeste¹; 2,45 milioi ziren aurreko urtean. Ekoizpen-sektore guztietan galdu dira enpleguak eta nazio-mailan -% 6,8koa izan zen galera. Industria-sektorean % 13,3 murriztu zen enplegatuen bolumena eta zerbitzuen sektorean % 2,5.

3.3. taula Enplegua eraikuntza-sektorean. Espainia. 2003-2009


	Okupatuak				
	Milaka pertsonatan		Gutzizkoaren gaineko %		Aldaketaren %
2003	2.101,7		12,2		6,1
2004	2.253,2		12,5		7,2
2005	2.357,2		12,4		4,6
2006	2.542,9		12,9		7,9
2007	2.697,3		13,3		6,1
	EJSN-93	EJSN-09	EJSN-93	EJSN-09	
2008	2.404,2	2.453,4	11,9	12,1	-10,9
2009		1.888,3		10,0	-23,0

Iturria: EIN, Biztanleria aktiboaren inkesta

Sektoreak etorkizunean edukiko duen bilakaera aztertzeko adierazle interesgarri bat zementuaren ekoizpena eta bere itxurazko kontsumoa da. Horrela, ziklo-aldaketarekin batera, eta eraikuntzaren sektoreak erakutsi duen bilakaerak izan duen eraginari erantzunez, azken urteetan bolumenak beherakada handiak ezagutu dituela baieztatu daiteke, bai zementuaren ekoizpenarekin lotuta, bai zementuaren kontsumoarekin lotuta.

Zehazkiago, 2009an zementuaren ekoizpena 2,45 milioi tonara iritsi zen batezbeste hilean, eta horrek % 30eko beherakada erakusten du aurreko urtean batezbeste ekoiztutako bolumenarekiko. Modu berean, zementuaren itxurazko kontsumoa 2,41 milioi tonakoa izan zen (-% 32 2008rekiko). Emaitza horien arabera, 2010ean eraikuntzaren erritmoa baxua izango dela aurreikusi da.

¹ 2009an EJSN sailkapena aldatzen da: aurrerantzean ez da EJSN-93 sailkapena erabiliko. Adierazitako kopurua eta aldaketa sailkapen berriarekin kalkulatu dira.



3.4. taula Espainiako eraikuntza-sektoreko beste hainbat adierazle. 2003-2009

(1)	Zementuaren ekoizpena		Zementuaren itxurazko kontsumoa	
	Milaka Tm	Urteko aldaketaren %	Milaka Tm	Urteko aldaketaren %
2003	3.732,8	5,7	3.851,9	4,8
2004	3.883,0	4,0	4.000,3	3,9
2005	4.195,6	8,1	4.292,5	7,3
2006	4.504,0	7,4	4.658,0	8,5
2007	4.560,0	1,2	4.666,4	0,2
2008	3.507,0	-23,1	3.558,0	-23,5
2009	2.455,4	-30,0	2.406,3	-32,4

(1) Hilabeteko batezbestekoen bitartez adierazitako datuak.

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, Adierazle Ekonomikoen Laburpena

3.2. Eraikuntzako azpisektoreei buruzko analisia

3.2.1. Sarrera

SEOPANek emandako informazioaren arabera, 2009an eraikuntzaren barne-ekoizpenaren balioa 163.659 milioi eurokoa izan zen, hau da, 2008ko ekoizpena baino % 15 gutxiago, balio nominaletan. Hala ere, kopuru erlatiboetan ezagututako uzkurdua ez zen hain altua izan (-% 11), sektorean % 5eko deflatore negatiboa erregistratu baita.

Jarduerak erakutsitako uzkurdua horrek indar berezia izan du eraikuntzan, izan ere, obra zibilaren esparruan, dinamismoa txikiago izanik ere, 2009 ixtean hazkunde-tasa positiboa erregistratu zen. Zehazkiago, eraikuntzan % 17ko uzkurdua ezagutu da kopuru errealetan; obra zibilak, berriz, % 2,5eko hazkundera ezagutu du kopuru errealetan azken urtean.


3.5. taula Barne-ekoizpenaren bilakaera azpisektoreka. Espainia. 1996-2009

(gaur egungo milioi eurotan)

	1996	2001	2006	2007	2008	2009
Bizitegia	18.537,4	35.406,8	65.996,4	70.832,6	62.128,0	44.809,2
Bizitegia ez dena	12.421,4	19.987,4	30.151,5	31.894,3	30.400,3	24.955,2
	17.152,0	26.077,3	44.671,4	47.484,0	45.982,0	38.836,9
ERAIKUNTZA	48.110,8	81.471,5	140.819,3	150.210,8	138.510,4	108.601,3
OBRA ZIBILA	16.738,5	25.182,5	46.060,6	50.343,4	54.923,6	55.058,2
GUZTIRA	64.849,3	106.654,0	186.880,0	200.554,2	193.434,0	163.659,4

Iturria: SEOPAN


Hain zuzen, obra zibilaren azpisektoreak azken urteetan eraikuntzaren sektoreak baino hazkunde handiagoa ezagutu du, kopuru errealetan. Hazkunde desberdinak ezagutu badira ere, sektore bakoitzak duen agerpen-proporzioari eutsi zaio denboran, eta azken urtean areagotu egin da obra zibilaren protagonismoa, eraikuntzaren barne-



ekoizpenaren guztizkotik % 34 bereganatuz. Proporzio hori benetan altua da, kontuan hartzen bada obra zibilak 2000-2006 aldian izandako batezbesteko agerpena % 24koa zela.


Eraikuntzaren azpisektorearen barruan, bizitegi-eraikuntzaren segmentua da azken hamar urteetan hazkunde handien ezagutu duena, nahiz eta, gaur egun, gainbehera handia bizi duen atzeraldiaren eraginez. Alabaina, azken urtean etxebizitza berriaren eraikuntza-jarduerak ezagutu duen uzkurdura % 24koa izan da kopuru errealetan; bizitegikoa ez den eraikuntzak % 14ko uzkurdura ezagutu du eta % 11koa, berriz, birgaitzearen eta mantentze-lanen segmentuak.

3.2. grafikoa Eraikuntzako jardueraren azpisektoreen bilakaera. 1997-2009 (urte arteko aldaketaren portzentajeak kopuru errealetan)




Iturria: SEOPAN.

3.3. grafikoa Eraikuntza-sektorearen ekoizpena. Pisu erlatiboaren bilakaera azpisektoreka.



Iturria: SEOPAN.




3.2.2. Bizitegi-eraikuntza eta etxebizitzaren eskaria

Barne-ekoizpenaren azterketa egitean erakutsi den moduan, bizitegi-eraikuntzak uzkurdura handia ezagutu du azken bi urteetan. Eraikitzen hasitako etxebizitza kopuruari dagokionez, azken hiru urteetan murrizketa ezagutu du guztizko bolumenak, behin eta berriro, 2006an lortutako maximotik hasita. Urte hartan 760.000 etxebizitza baino gehiago hasi ziren eraikitzen.

2009an 159.300 etxebizitzaren eraikuntzari ekin zitzaion, eta kopuru horrek garbi erakusten du higiezinaren merkatuko jarduerak ezagututako uzkurdura nabarmena. Hain zuzen ere, 2008an eraikitzen hasitako etxebizitzaren erdia dira eta 2006an lortutako bolumena baino bost aldiz gutxiago².

Eraikitzen amaitutako etxebizitzari dagokionez, higiezinaren merkatuaren geldotzeak eraikitzen hasitako kopuruaren murrizketa ekarri du, logikoa den moduan. Horrela, azken urteetan hazkunde-garaian eraikitzen hasitako etxebizitzaren eraikuntza amaitzen zen bitartean, 2009an, dagoeneko, uzkurdura nabarmena ezagutu da, hortaz, eraikitzen amaitutako 424.500 etxebizitzak 2008an amaitutako etxebizitzaren bi heren dira.


3.4. grafikoa Eraikitzen hasitako eta amaitutako etxebizitzaren kopurua. 1997-2009



Iturria: Etxebizitza Ministerioa.

Etxebizitzaren tipologia erreparatuz, merkatu libreak ezagutu duen uzkurdura segmentu babestuak ezagututakoa baino zerbait arinagoa izan da, eta, ondorioz, gaur egun nazio-mailako bizitegi-eraikuntzaren zati handi bat hartzen du, goraldi ekonomikoan zuen agerpenarekin alderatuz.

Zehazkiago, 2009an Estatu osoan 79.076 etxebizitza babesturen eraikuntzari ekin zitzaion, aurreko urtean baino % 13 gutxiago. Sektore libreari dagokionez, 80.230 etxebizitzaren eraikuntzari ekin zitzaion, hau da, % 66 gutxiago. Gauzak horrela,




merkatu libreak erakutsitako bilakaerak egoera berezia eta berria eragin du Estatuan eta merkatu babestuaren kuota % 50 ingurukoa izatera iritsi da. Ezin da ahaztu duela bi urte soilik eraikitzen hasten ziren etxebizitzaren % 14 etxebizitza babestuaren modalitate baten barruan sartzen zirela.

3.6. taula Eraikitzen hasitako eta amaitutako etxebizitzak sustapen motaren arabera. 2003-2009

	HASITAKO ETXEBIZITZAK			Hazkunde- tasa (%)	AMAITUTAKO ETXEBIZITZAK			Hazkunde- tasa (%)
	Babestuak	Libreak	Guztira		Babestuak	Libreak	Guztira	
2003	72.168	550.465	622.633	14,0	40.994	462.730	503.724	-2,8
2004	72.450	621.257	693.707	11,4	54.630	509.923	563.923	12,0
2005	81.855	635.608	717.463	3,4	62.850	528.754	591.604	4,9
2006	97.617	664.923	762.540	6,3	60.878	597.632	658.510	11,3
2007	85.233	532.117	617.350	-19,0	67.514	579.665	647.179	-1,7
2008	90.531	237.960	328.491	-46,8	68.587	563.631	632.218	-2,3
2009	79.056	80.230	159.286	-51,5	67.904	356.555	424.459	-32,9

Iturria: Etxebizitza Ministerioa

3.5. grafikoa Eraikitzen hasitako etxebizitzaren bilakaera erregimenaren arabera. 1997-2009.




Iturria: Etxebizitza Ministerioa.

Eraikitzen hasitako etxebizitzaren bolumenak izan duen beherakada nabarmen horren arrazoi nagusia eskariak ezagutu duen uzkurdua da. Horrenbestez, kontrako egoera ekonomikoak, finantzaketa lortzeko baldintzen gogortzeak, langabeziak izandako gorakadak eta egoera ziurgabeak ekarri dute eskariaren uzkurdua.


Bestalde, higiezinaren eskari atzerritarrek, batez ere bigarren bizilekuak eskuratzeko eskariak, barne-eskariak ezagututako galera konpentsatzea lortu du, nahiz eta azken urteetan egoera oso zaila izan den. Hala ere, 2009an nabarmenki uzkurdu da inbertsio atzerritarra. Zehazkiago, etxebizitza eskuratzeko kapital atzerritarren bolumena 3.656 milioi eurora iritsi zen, aurreko urtean baino % 32 gutxiago.

² 2010eko lehen erdian 75.000 etxebizitza baino gutxiago hasi dira eraikitzen.



Etxebizitzaren eskariak ezagututako beherakada prezioen bilakaeran islatu da, halaber. Horrela, eraikuntza berriko etxebizitzaren batezbesteko prezioa % 2 murriztu zen 2008an eta % 6 2009an Estatuan; bigarren eskuko etxebizitzaren prezioak, berriz, % 3,7 murriztu ziren 2008an eta % 6,4 2009an. Eraitza horiek aurreko urteetan prezioek ezagututako gorakada gelditu dute, nahiz eta egindako aurreikuspenen arabera, prezioen uzkurdura handiagoa espero zen.

3.6. grafikoa Inbertsio atzerritarra higiezinaren esparruan. 1997-2009.



Iturria: Espainiako Bankua.

3.2.3. Eskaintza ofiziala


SEOPANek emandako datuen arabera, 2009an obra publikoan egindako kontratazioak 39.100 milioi euroko guztizko balioa erregistratu zuen, eta horrek aurreko ekitaldiko emaitzekiko uzkurdura txikia izan dela erakusten du (-% 1,8). Epe luzeago batera egindako azterketak erakusten duenez, 2007an izan zen gainbehera nabarmenena (-% 13,6 urtean), eta azken bi urteetan, berriz, eskaintako bolumenak ezagutu du uzkurdura nagusiki, baina ezagututako uzkurdurak ez dira hain nabarmenak izan.

3.7. taula Eskaintza ofizialaren bolumenaren* bilakaera. 2003-2009

URTEA	Milioi eurotan (gaur egungoak)	Hazkunde-tasa nominala
2003	26.807,45	2,2
2004	31.620,03	18,0
2005	39.488,55	24,9
2006	46.690,23	18,2
2007	40.354,75	-13,6
2008	39.811,96	-1,3
2009	39.100,39	-1,8


* Iragarkiaren datuen araberako eskaintza.

Iturria: SEOPAN.



Bestalde, 2009an Espainiako BPGd-ren guztizkoaren % 3,7ra iritsi zen obra publikoan egindako kontratazioa, eta kopuru hori aurreko bi urteetan lortutakoaren oso antzekoa da, baina 2005ean eta 2006an lortutakoak baino dezente baxuagoa.


3.7. grafikoa Eskaintza publikoak Espainiako BPGd-n duen pisua. 1997-2009.




Iturria: Espainiako Bankua.

Eskaintza ofiziala obra motaren arabera aztertzen bada, hainbat datu interesgarri ikus daitezke, hala nola urbanizazio-obren agerpenak izandako hazkunde handia eta, aldi berean, errepideetan obrak egiteko eskaintzaren pisuak ezagututako beherakada nabarmena. Alabaina, urbanizazio-obrak eskaintzaren guztizkoaren % 20ra iritsi dira (% 12 2008an) eta errepideetako obrak, berriz, % 12ra, 2008an % 27ko portzentajea erregistratu zelarik.

Gainerako obrei dagokienez, trenbideek % 19ko portzentajeari eutsi diote, gizarte-ekipamenduak zerbait gora egin du (% 20, eta % 16 2008an) eta etxebizitzaren eraikuntzak guztizko eskaintzaren % 4 bakarrik bereganatu du (% 5 2008an).



3.8. grafikoa Eskaintza ofizialaren banaketa obra motaren arabera



Iturria: SEOPAN.

3.3. Sektorekako kostuak

Sustapen Ministerioak emandako informazioari erreparatuz, sektoreko kostuek % 0,8ko hazkunde-tasa lortu zuten, aurreko bi urteetan erregistratutako tasak (% 5 inguru) baino dezente gutxiago. Hala ere, kostuen osagai desberdinak aztertzen badira, eskulanaren kostuek portaera inflazionista handiagoa erakutsi dutela ikus daiteke (+% 4,7), eta materialen kostuak zerbait jaitsi direla ikus daiteke, halaber (-% 1,2 2008rekiko).

Eraikuntzaren azpisektoreei dagokienez, obra zibilak ezagutu duen hazkundea eraikuntzaren segmentuak ezagutu duena baino zerbait handiagoa da. Hain zuzen ere, hazkunde-tasak % 1,7 eta % 0,6 izan dira, hurrenez hurren.

3.8. taula Eraikuntzako kostuen indizeak. Espainia. 2005-2009

(Oinarria: 2005eko urtarrila=100)

URTEA	GUZTIRA	ESKULANA	MATERIALA	ERAIK.	O. ZIBILA
2005	100,72	99,92	101,18	100,68	100,81
2006	107,76	104,34	109,69	107,57	108,49
2007	112,99	106,82	116,47	112,53	114,65
2008	118,51	112,88	121,68	117,76	121,78
2009	119,50	118,23	120,22	118,52	123,80

Iturria: Sustapen Ministerioa.



3.4. Enpresa-egitura eta -dinamika

Estatistikako Institutu Nazionalak emandako informazioaren arabera, 2009an eraikuntzaren sektorearen barruan 441.956 enpresa daude, Estatu osoa kontuan hartuta. Balio horrek Estatuan eraikuntzaren sektorean jarduten duten enpresen bolumenak lehen aldiz behera egin duela erakusten du. Zehazkiago, azken urtean 59.100 unitatetan murriztu da enpresa kopurua, hau da, % 12 gutxiago daude.


Azpisektore desberdinak aztertzen badira, ekoizpen-segmentu guztiek atzera egin dutela ikus daiteke, nahiz eta murrizketa handiagoa ezagutu duen higiezin eraikuntzan berriaz jarduten duen segmentuak (-% 13,3), eta eraikinen eta obren instalazioekin lotuta jarduten duten enpresen kasuan, berriz, merkatuan duten agerpena gutxiago murriztu den (-% 6,5 2008ko datuekiko).

3.9. taula Eraikuntza-sektoreko enpresa kopuruaren bilakaera. 2006-2009


	2006	2007	2008	2009
45.1 Obren prestaketa	6.692	7.393	8.648	7.637
45.2 Higiezin eraikuntza orokorra	245.558	267.632	272.616	236.118
45.3 Eraikinen eta obren instalazioak	91.936	99.200	101.864	95.292
45.4 Eraikinen eta obren akabera	103.708	113.398	116.800	101.846
45.5 Ekipoen alokairua	552	785	1.128	1.063
ERAIKUNTZA GUZTIRA	448.446	488.408	501.056	441.956

Iturria: EIN. DIRCE (EJSN-93).

Eraikuntzaren sektorean jarduten duten enpresen bolumenak ezagutu duen murrizketa garrantzitsu hori, enpresa horiek enpresa-ehunduran duten agerpen erlatibo baxuagoak ekarri du. Horrela, 2009an eraikuntzaren sektorean daude barne hartuta Estatu ekonomiko enpresen guztizkoaren % 13,2; proportzio hori % 14,6koa zen aurreko urtean.



3.9. grafikoa Eraikuntza-sektoreko enpresek Espainiako enpresa-ehunduran duten pisua ehunekotan. 1997-2009.




Iturria: EIN. DIRCE (EJSN-93).

Enpresen tamainari dagokionez, tamaina txikiko enpresak nagusitzen dira, izan ere, enpresen erdiak ez dute soldatapeko langilerik (autonomo asko daude sektorean), eta beste % 24k soldatapeko langile bat edo bi soilik dute.


Agregazio handiago baten arabera, enpresen % 92k dituzte 10 langile baino gutxiago, % 7k 10-49 langile artean dituzte eta % 1ek bakarrik dituzte 50 langile edo gehiago.

Jardueraren azpisektoreen arabera, banaketari erreparatzen bazaio, bestalde, higiezinaren eraikuntzan orokorrean jarduten dute establezimenduen % 53,5ek, % 23 eraikinen eta obren akaberarekin erlazionaturakoa enpresak dira, % 21,6k instalazioak dituzte beren jardueraren xede, % 1,7k obretako prestakuntza eta % 0,2k ekipoak alokatzen dituzte.

Eraikuntzaren sektoreko enpresen banaketa geografikoari dagokionez, lau autonomia-erkidegotan enpresa ugari kokatzen direla ikus daiteke. Zehazkiago, Katalunia, Madril, Andaluzia eta Valentziako Erkidegoan kokatzen dira Estatuko eraikuntza-enpresen % 55. Hala ere, eraikuntzako establezimenduek erkidegoaren enpresa-ehunduran duten pisu erlatiboari dagokionez, bi Gaztelak ditugu agerpen handien lortu dutenak: Gaztela-Mantxa (% 18,1) eta Gaztela eta Leon (% 15,9).



3.10. grafikoa Eraikuntza-sektoreko enpresen egitura (2009)



*Kodeen elkarrekikotasuna: EJSN-93 kodeak: 45.1 Obren prestaketa; 45.2 Higiezinaren eraikuntza orokorra; 45.3 Eraikinen eta obren instalazioak; 45.4 Eraikinen eta obren akabera; 45.5 Ekipoen alokairua.

Iturria: EIN. DIRCE.


Eraikuntzaren sektorean mikroenpresa eta autonomo asko badaude ere, Espainian eraikuntzaren sektorearekin lotutako enpresa-talde handiak daude. Hain zuzen, Espainian ACS, FCC, Ferrovial, Acciona edo Sacyr Vallehermoso gisako eraikuntza-enpresa handiak nabarmentzen dira.

3.10. taula Espainiako eraikuntza-sektoreko enpresa nagusiak, 2008.

ENPRESA	2008	
	Leihoak (Milioi €)	Langileak (enplegu kop.)
ACS Actividades de Construcción y Servicios	16.544	138.936
Fomento de Construcciones y Contratas (FCC)	14.391	93.863
Grupo Ferrovial	14.146	106.597
Acciona	13.188	41.448
Sacyr Vallehermoso, SA	5.561	20.711
Abengoa	3.242	23.234
Acciona Infraestructuras	3.114	10.216
Elecnor	1.919	8.299
OHL	1.579	5.961
Constructora San José	1.373	4.386

Iturria: www.actualidadeconomica.es (Espainiako 5.000 enpresa handien rankinga)

2008an lortutako sarrerak aztertuz, ACS agertzen da rankingaren lehen postuan (16.544 milioi euro), eta ondoren daude FCC (14.391 milioi euro) eta Ferrovial (14.146




miloi euro). Hurrengo kapituluan ikusiko den moduan, enpresa horiek Europako eraikuntza-enpresa handien artean sailkatuta daude, halaber.

3.5. Kanpo-jarduera

2009an Espainiako eraikuntza-enpresen esportazio-jarduera zerbait murriztu da aurreko urtearekiko, kanpo-merkatuek behin eta berriro zabalkuntza ezagutu eta gero. Hala ere, kontuan hartu behar da maila altuan daudela oraindik ere, izan ere, 2006ko fakturazioaren bikoitza lortu da. Hazkunderik nabarmenena 2008an izan zen: urte hartan fakturazioak eta kontratazioak hazkunde esanguratsua ezagutu zuten.


Zinez, kanpoan gauzatutako proiektuengatik fakturazioa ia 11.200 milioi eurora iritsi zen 2009an, hau da, 2008an baino % 4 gutxiago baina 2007an baino % 38 gehiago. Uzkuerdura handiagoa ezagutu zuen nazioarteko kontratazioaren zenbatekoak 2009an: ia 15.500 milioi eurora iritsi zen, hau da, 2008an kontratazioak lortutako zenbatekoa baino % 16 gutxiago, baina 2007koa baino % 39 gehiago, oraindik ere.

3.11. grafikoa Eraikuntza-sektoreko esportazio espainolaren bilakaera. 1996-2009.



Iturria: SEOPAN eta European International Contractors


Esparru geografikoen araberako azterketa bat eginez, enpresa espainolen esportazioen norako nagusia Europar Batasuneko beste herrialde batzuk direla erakusten dute datuek; horrela, 2009an nazioarteko kontratazioaren % 54,5 EBn egin da. Modu berean, azken urtean gora egin du eraikuntza-enpresa espainolek Erdialdeko Amerikan eta Hego Amerikan duten agerpen erlatiboa (% 17, % 10 2008an), baina murriztu egin da esportazioa merkatu afrikarretan (% 3, % 8 2008an).



3.11. taula Eraikuntza espainolaren esportazioa xede-herrialdearen arabera. 2006-2009.

EREMU GEOGRAFIKOAK	Kontratazioa (%)			
	2006	2007	2008	2009
Europar Batasuna	55,5	67,9	54,6	54,5
Erdialdeko Amerika eta Hego Amerika	14,2	10,2	10,3	17,4
Estatu Batuak eta Kanada	19,0	14,9	16,2	15,7
Afrika	7,7	1,2	7,9	2,9
Beste hainbat	3,6	5,8	11,0	9,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: SEOPAN.



4. ERAIKUNTZA EUROPAR BATASUNEAN

4.1. Ekoizpen-mailen analisisia


Europar Batasuneko ekonomiak inoizko atzeraldi handiena ezagutu du 2009an. Horrela, 2008an BPGd-k hazkunde txiki bat lortu zen urtea ixteko (+% 0,8), baina 2009an jarduera murriztu egin zen (-% 4,2). Dena den, 2009ko azken zatian Europako ekonomiaren egoera aldatzen hasi zen. Alabaina, 2009ko azken hilabeteetan ekonomiak eta finantza-baldintzek hobera egin zuten, eta Europar Batasunean eta bertako kide diren herrialdeetan hartutako zerga-neurriei eta moneta-politikari esker lortu zen hobekuntza, neurri handi batean. Hala ere, ezin da ahaztu lan-merkatuaren egoera kaxkarra dela oraindik eta ziurgabetasun handia dagoela.

2009 amaieran lortu zen urte arteko BPGd-ren beherakada arintzen hasia, eta 2010ean lehen erregistro positiboa lortu zen. Badirudi Europako ekonomiak hobekuntzarako bideari heldu diola (Batzordeak -% 1,8ko hazkunde aurreikusi du 2010erako eta +% 1,7koa 2011rako³), munduko ekonomiak hobera egin duen testuinguruarekin bat eginez.


Hain zuzen ere, munduko ekonomian Europako herrialdeetan baino hazkunde handiagoak lortu dira, nahiz eta hazkunde ez den berdin nabarmendu herrialde guztietan eta Txina moduan indartzen ari diren herrialdeek egin duten ekarpen handiena BPGd-k izandako hazkundera. Bestalde, Europako ekonomia AEBetako baino beranduago hasi da suspertzen, eta euroaren guneak erakutsitako ahultasunaren ondorioz, euroak balioa galdu du beste dibisa garrantzitsu batzuen aurrean, eta horrek are zailago egiten du krisialditik irtetea.

Europako ekonomia orokorrak izan duen bilakaera negatibo horrek modu esanguratsuan eragin du eraikuntzaren sektorea: ekoizpenak % 7,5eko uzkurdua ezagutu du 2009an (-% 0,4 2008an). Gainera, aurreikuspenek diotenez, 2010ean ekoizpena murriztu egingo da berriro, % 3,7 inguru, hain zuzen ere. Emaitza negatiboak izan badira ere, eraikuntzaren sektorea oso garrantzitsua da Europar Batasunaren ekonomia orokorrean (EBko BPGd orokorraren % 9,9).

³ 2010eko iraileko aurreikuspena



4.1. grafikoa Eraikuntza-sektoreko ekoizpenaren bilakaera. EB (1). 2001-2009.




(1): Ez dira barne hartu Grezia, Eslovakia, Hungaria, Luxemburg, Malta, Polonia, Letonia eta Zipre.
*Zenbatespena.

Iturria: FIEC, Eraikuntzako Industria Europarraren Federazioa


FIEC erakundeak (Eraikuntzako Industria Europarraren Federazioak) emandako datuen arabera, EB-27ko eraikuntzaren sektoreko guztizko ekoizpena 1,2 bilioi euro ingurukoa izan zen. Guztizko bolumen horretatik, aurreko urteetan bezala, bost herrialde handik bereganatzen dute guztizko ekoizpenaren % 71: Alemania (% 20,9), Espainia (% 13,9), Frantzia (% 13,7), Italia (% 12,3) eta Erresuma Batua (% 10,2) dira herrialde horiek.

4.2. grafikoa Eraikuntza-sektoreko ekoizpena EB-27an, 2008-2009.



Iturria: FIEC.

Eraikuntzaren sektoreko jarduerak ezagutu duen gainbehera EBko kide diren herrialde guztietara zabandu da, nahiz eta guztietan ez den berdin nabarmendu. Horrela, 2008an



herrialde askok lortu zuten urtea hazkunde positiboekin ixtea, baina 2009an herrialde askotan erregistratu dira BPGd-ren aldaketa-tasa negatiboak; Alemaniak lortu du guztien artetik erregistro onena (urteko -% 0,8).

Azterketa sakonago bat eginez, uzkurdua handienak Erdialdeko Europako eta Ekialdeko Europako herrialdeetan izan dira; besteak beste, honakoak dira aipatzekoak: Lituania (-% 46,1), Bulgaria (-% 36,9) Estonia (-% 30,5) eta Eslovenia (-% 20,5). Modu berean, mendebaldeko Europako hainbat herrialdeetan higiezin merkatuak uzkurdua handia ezagutu du, hala nola Irlandan (-% 23,5), Erresuma Batuan (-% 14,2) eta Espainian (-% 11,4).

Hala ere, mendebaldeko Europako herrialde gehienek erakutsi dute krisialdi ekonomikoak eta finantzarioak ez dituela hainbeste eragin, eta digitu bakarreko aldaketa-tasak erregistratu dituzte; horrela izan da, adibidez, Austrian (-% 3,3), Belgikan (-% 2,2) edo Frantzia (-% 6,8), eta azpimarratzekoa da Alemania (-% 0,8), zeinek azken urtean ekoizpen-mailari eustea lortu duen eta aurreko urtean egindako aurreikuspenak gainditu dituen.

4.1. taula Eraikuntza-jardueraren bilakaera Europar Batasunean. 2005-2009


(urte arteko aldaketaren % kopuru errealetan)

	2005	2006	2007	2008	2009*
ESPAINIA	6,0	6,0	4,0	-5,1	-11,4
ALEMANIA	-3,0	4,6	0,0	2,6	-0,8
ERRESUMA BATUA	-1,0	1,1	2,5	1,0	-14,2
FRANTZIA	4,0	5,4	4,2	-2,6	-6,8
ITALIA	0,7	0,7	1,1	-2,3	-9,4
AUSTRIA	-0,9	1,1	-1,7	-3,0	-3,3
BELGIKA	4,4	5,2	3,8	1,2	-2,2
TXEKIAR ERREPUBLIKA	6,2	8,4	6,4	0,7	-3,2
DANIMARKA	5,2	10,7	1,6	-5,1	-10,1
ESTONIA	19,8	30,0	12,7	-16,0	-30,5
FINLANDIA	5,3	4,3	8,4	1,6	-12,3
BULGARIA	32,3	21,9	26,0	73,2	-36,9
IRLANDA	8,4	7,9	1,1	-6,3	-23,5
LITUANIA	11,5	21,4	21,6	0,8	-46,1
HERBEHEREAK	2,7	4,1	5,7	5,7	-4,8
PORTUGAL	-3,1	-5,7	-0,5	-3,1	-9,0
ERRUMANIA	.g.	15,9	34,5	25,8	-14,2
SUEDIA	4,2	10,0	6,4	1,7	-6,6
ESLOVENIA	3,1	16,0	14,7	15,1	-20,6
ZIPRE	8,1	7,0	11,8	3,1	-9,5
EB (1)	1,3	4,0	2,5	-0,4	-7,5

(1): Ez dira barne hartu Grezia, Eslovakia, Hungaria, Luxemburg, Malta, Polonia eta Letonia.
d.e. "daturik ez"


*Zenbatespena.

Iturria: FIEC.



EB-27an eraikuntzak BPGd-ra egindako ekarpena % 9,9koa da FIEC erakundeak (Eraikuntzako Industria Europarraren Federazioak) emandako datuen arabera, baina desberdintasun handiak ikus daitezke herrialde batetik bestera. Horrela, Bulgariaren kasuan eraikuntzak herrialdeko BPGd-ren % 20,7 lortu duen bitartean, Grezian eta Turkian % 5,4ko portzentajea lortu da soilik. Hala ere, datu horiek erlatibizatzea komeni da. Hain zuzen ere, informazio-iturri horren arabera, Espainian eraikuntzak BPGd-ra egindako ekarpenak nabarmenki gainditzen du EINren Espainiako Kontabilitate Nazionalak esleitzen dion balioa (% 15,5, % 10en parean)⁴.


4.3. grafikoa Eraikuntzak BPGd-ra egindako ekarpena EBn (% eraikuntza/BPGd-, 2009*)



*Zenbatespena.

Iturria: FIEC

⁴ Ikus 3. kapitulua.



4.2. Enplegua eraikuntza-sektorean

FIEC erakundeak egindako zenbatespenen arabera, Europa osoan eraikuntzaren sektorean dagoen enplegatu kopurua 14,5 milioi pertsonara iritsi zen 2009an. Balio hori aurreko urtean sektoreak erregistratutakoa baino dezente baxuagoa da, % 8,3 gutxiago, hain zuzen ere, eta beherakada hori bat dator eraikuntzaren sektoreko ekoizpen-jarduerak ezagutu duen krisialdiarekin.

FIEC erakundeak landutako zenbatespenen arabera, eraikuntzaren sektoreko enplegua EB-27ko guztizko enpleguaren % 7,1era iristen da eta % 29,1era industria-enpleguaren kasuan. Horrezaz gainera, eraikuntzaren efektu biderkatzailea kontuan hartuta, eraikuntzaren industrian lan egiten duen pertsona bakoitzagatik bik gehiagok lan egiten dute eraikuntzaren mendeko jardueretan; hortaz, FIEC erakundeak egindako zenbatespenen arabera, EBn 44 milioi langile baino gehiago daude eraikuntzaren sektorearen mende, zuzenean edo zeharka.

4.2. taula Eraikuntza-sektoreko enpleguaren bilakaera. EB 2000-2009

URTEA	Langileak guztira (milakotan)	Aldaketaren % Aurreko urtearekiko aldaketaren %
2000	14.086	3,0
2001	14.122	0,3
2002	14.101	-0,1
2003	14.312	1,5
2004	14.406	0,7
2005	14.838	3,0
2006	15.278	3,0
2007	15.974	4,6
2008	15.808	-1,0
2009*	14.494	-8,3


(1): Ez dira barne hartu Eslovakia, Luxemburg eta Letonia.

*Zenbatespena.

Iturria: FIEC.

Enpleguak herrialdeka lortu duen banaketak erakusten digu bost herrialdek bereganatu dutela guztizko enpleguaren bi heren. Horrela, Alemania, Erresuma Batua, Italia, Espainia eta Frantziak, bakoitzak bi milioi enplegatu ingururekin, % 15,2, % 13,6, % 13,1, % 12,3 eta % 12,2 inguruko portzentajeak lortu dituzte, hurrenez hurren.

Azken urteetan egindako ibilbideari dagokionez, azken urtean herrialde europar gehienetan enpleguak uzkurdua nabarmena ezagutu duela baieztatzen da, goraldia ezagutu eta gero. Alabaina, Alemaniak bakarrik lortu du eraikuntzaren sektorean enplegatu bolumenari eustea. Bien bitartean, gainbehera txikia ezagutu dute Erresuma Batuek (-% 12,2) eta, batez ere, Espainiak (-% 25).



4.3 taula Eraikuntzako enpleguaren bilakaera EBn, herrialdeka. 2005-2009.

Milaka pertsonatan

	2005	2006	2007	2008	2009*
AUSTRIA	253	259	266	267	264
BELGIKA	241	250	257	258	256
BULGARIA	160	183	232	287	278
ZIPRE	35	37	38	45	43
TXEKIAR ERREPUBLIKA	458	436	447	437	404
ALEMANIA	2.179	2.174	2.209	2.193	2.200
DANIMARKA	162	171	181	174	151
ESTONIA	d.e.	d.e.	d.e.	d.e.	d.e.
ESPAINIA	2.388	2.533	2.638	2.375	1.784
FINLANDIA	165	171	184	191	180
FRANTZIA	1.622	1.696	1.768	1.807	1.770
ERRESUMA BATUAN	2.120	2.169	2.245	2.252	1.977
GREZIA	298	300	305	308	300
HUNGARIA	308	313	322	298	241
IRLANDA	233	260	283	257	190
ITALIA	1.898	1.921	1.982	1.971	1.904
LITUANIA	133	149	171	166	130
MALTA	12	11	12	13	d.e.
HERBEHEREAK	450	456	462	470	461
POLONIA	484	511	615	671	695
PORTUGAL	554	553	571	555	506
ERRUMANIA	363	380	420	420	382
SUEDIA	258	274	290	306	293
ESLOVENIA	65	70	78	88	86
EB(1)	14.838	15.278	15.974	15.808	14.494

(1): Ez dira barne hartu Eslovakia, Luxemburg eta Letonia.


d.e. "daturik ez"

*Zenbatespena.

Iturria: FIEC.

4.3. Jarduera azpisektoreka

Eraikuntzako azpisektore desberdinei erreparatuz, ezin da ahaztu Europako herrialdeetan eragin handiagoa izan duela krisialdiak eraikuntzaren sektorean eta, batez ere, etxebizitza berriaren eraikuntzarenean, obra zibilarenean baino. Hain zuzen, etxebizitzaren eraikuntzaren beherakada gainerako azpisektoreen beherakadaren aurretik hasi zen eta 2007an, dagoeneko, etxebizitza berrien ekoizpenaren gainbehera nabarmentzen hasi zen. Ordutik gero eta negatiboak izan dira tasak eta 2009an % 15,6ko uzkurdura ezagutu zen. Horrezaz gainera, 2010erako aurreikuspenen arabera, murrizketa ezagutuko da berriro, % 8,3koa oraingoan. Gainbehera horren arrazoiak dira, beste batzuen artean, inbertitzaile pribatuek kredituak lortzeko dituzten zailtasunak eta merkatuaren gaineko konfiantza galtzean eskariak ezagututako beherakada eta ekonomiak oro har izan duen bilakaera.



Etxebizitzen birgaitzeari eta mantentze-lanei dagokienez, 2009an ekoizpenak % 4,1eko beherakada ezagutu zuen, hau da, etxebizitza berriaren eraikuntzak ezagututako beherakada baino zerbait gutxiago. Krisialdiaren ondorioz, lehen etxebizitza berriaren egiten ziren inbertsioak birgaitze-jardueretara zuzentzen dira orain. Gainera, Europako gobernu gehienek abian jarri dituzte birgaitze-jarduerak suspertzeko neurriak. Hala ere, birgaitze-jarduerak eta mantentze-lanek ez dute lortu bizitegi-eraikuntza berrien ekoizpenak ezagutu duen murrizketa handia konpentsatzea. Horrela, etxebizitzaren azpisektoreak % 9,4ko murrizketa ezagutu zuen 2009an.

Bestalde, bizitegikoa ez den eraikuntzaren segmentua zen 2008an eraikuntzaren jardueraren eragile nagusia, baina 2009an murrizketa handia ezagutu du (-% 7,9), batez ere esparru pribatuak ezagutu duen uzkurdurak eraginda (-% 10,8). Osagai publikoak, aitzitik, % 1,1eko gorakada ezagutu du, hortaz, 2009an gora egitea lortu duen azpisektore bakarra da.

Obra zibilaren ekoizpenak izan duen murrizketa (urteko -% 2,8) ez da hain nabarmena izan, eta bera da bilakaera bikainena erakutsi duen bigarren azpisektorea, bizitegikoa ez den segmentu publikoaren atzetik. Hala ere, emaitza hori ez da iaz egindako zenbatespenen arabera espero zitekeena bezain ona. Izan ere, iazko zenbatespen horiek jarduerak hazkunde positiboa ezagutuko zuela aurreikusten zuten.

4.4 taula Eraikuntza-sektorearen barne-ekoizpenaren bilakaera, azpisektoreka EBN 2003-2009.

(urte arteko aldaketa erreala %)


	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009*
1. ERAIKUNTZA	0,5	1,8	1,5	4,5	2,6	-1,0	-9,0
▪ Etxebizitza	2,3	3,9	2,9	5,3	1,2	-3,2	-9,4
- Berria	3,9	7,5	2,5	6,5	-4,0	-10,1	-15,6
- Birgait. eta manten.	1,0	1,2	2,8	3,8	4,6	1,9	-4,1
▪ Bizitegikoa ez dena	-1,7	-0,7	-0,5	3,3	4,7	2,6	-7,9
- Pribatua	-3,2	-1,6	-0,2	4,0	5,8	3,1	-10,8
- Publikoa	2,7	1,3	-1,0	1,8	1,6	4,0	1,1
2. OBRA ZIBILA	1,6	0,3	0,3	1,7	1,7	1,0	-2,8
GUZTIRA (1+2)	0,8	1,5	1,3	4,0	2,5	-0,4	-7,5

(¹) Ez dira barne hartu Grezia, Eslovakia, Hungaria, Luxemburg, Malta, Polonia, Letonia eta Zipre.

* Zenbatespena.

Iturria: FIEC.


Herrialde bakoitzak bizitako egoera sakonkiago aztertzen bada, batetik bestera desberdintasun handiak daudela ikus daiteke. Horrela, etxebizitza berriaren eraikuntzari erreparatzen bazaio, Suedia, Danimarka, Erresuma Batua edo Espainia gisako herrialdeek uzkuradura handiak ezagutu dituzte, eta Alemanian edo Austrian 2009an ezagutu dituzten uzkurdurak askoz ere arinagoak izan dira. Danimarkari dagokionez, 2006tik etengabekoa izan da murrizketa; Suedian, berriz, azken urtean ezagututako



uzkurduraren ondorioz (-% 40), azken hamar urteetako ekoizpen baxuena erregistratu da.

4.4. grafikoa. grafikoa ikus daiteke etxebizitza berrien eraikuntzak herrialde europar garrantzitsuenetan izandako bilakaera. Horrela, erreferentzia gisa 2000. urtea hartzen badugu, Frantziak bakarrik lortu du 2009an erregistratutako ekoizpen-bolumena gainditzea; Alemania maila dezente baxuago batean geratu da, aldi honetan etengabekoa izan baita jardueraren murrizketa.


4.4. grafikoa Europar Batasuneko merkatu nagusietan etxebizitza berriaren eraikuntzak izandako bilakaera. 2000-2009*




* Zenbatespena.
Iturria: FIEC.

Bizitegia ez den eraikuntzaren osagai pribatuari dagokionez, 2009an ez dago Europar urtea hazkunde positiboekin itxi duen herrialderik. Hala ere, bizitegia ez den eraikuntzaren osagai publikoak erregistro positiboak lortu ditu hainbat herrialdetan, faktore desberdinen eraginez. Erresuma Batuak, adibidez, % 11,5eko gorakada ezagutu du segmentu horretan, batez ere 2012ko Joko Olinpikoen prestaketari eta eskolak eraikitzeko programari esker. Suedian (+% 8,4) eta Alemanian (+% 10,8), bestalde, jardura suspertzeko programak oso garrantzitsuak izan dira, tokiko agintaritzak eraikin publikoetan inbertitzera animatu baitituzte, baina, hala ere, programa horiekin ez da lortu inbertsio pribatuak izandako beherakada konpentsatzea.

Amaitzeko, Europako eraikuntzaren sektoreko ekoizpen-egiturari erreparatzen bazaio, datuek garbi islatzen dute bizitegia ez den eraikuntzaren nagusitasuna: guztizko ekoizpenaren gainean % 31ko kuota lortu du. Birgaitze-jarduerak hazkunde nabarmena ezagutu du, % 29ko partaidetzara iritsiz (% 24koa 2007an), eta hazkunde hori etxebizitza berriaren eraikuntzaren kalterako izan da; azken horren kasuan, behera egin du ekoizpen-kuotak (% 18, eta % 25 2007an). Obra zibilari dagokionez, azken urteetan (% 20 2007an) lortu duen partaidetza gainditi du oraingoan (% 22).



4.5. grafikoa Eraikuntza-sektorearen ekoizpenaren banaketa, azpisektoreka, 2006-2009



Iturria: FIEC.


4.4. Enpresa-egitura

FIEC erakundeak emandako datuen arabera, 3 milioi enpresa inguru daude Europar Batasuneko eraikuntza-sektorean. Enpresa horietatik gehienak tamaina txikiko enpresak dira, hain zuzen ere, % 95ek 20 langile baino gutxiago dituzte eta % 93k ez dituzte 10 enplegu.

Era berean, sektore honen ezaugarrietako bat langile autonomoen proportzio altua da. Alabaina, FIEC erakundeak emandako datuen arabera, Europako eraikuntzaren sektoreak 3,48 milioi langile autonomo ditu, hau da, guztizkoaren % 24 langile autonomoak dira.

Hala ere, tamaina txikiko enpresa eta langile autonomo asko egoteaz gain, Europako eraikuntzaren sektorean enpresa erraldoi handiak daude, gutxi badira ere. Horrela, Europan fakturazio-bolumen handia duten eraikuntza-enpresa nagusien rankingean Vinci eta Bouygues enpresa frantsesak dira nagusi. Bi enpresa horien guztizko salmentak 34 eta 33 bilioi euro ingurura iritsi ziren 2009an, hurrenez hurren, eta eraikuntzatik jasotako sarrerak, bestalde, 29 eta 25 bilioi eurora iritsi ziren, hurrenez hurren.

Ranking berean Espainiako hainbat enpresa agertzen dira lehen postuetan. Zehazkiago, FCC, ACS Actividades de Construcción y Servicios eta Grupo Ferrovial daude hamargarren, hamaikagarren eta hamaseigarren postuetan, eraikuntzatik jasotako sarrerei dagokienez, baina guztizko negozio kopurua kontuan hartzen bada, Europako sei eraikuntza-enpresa nagusien artean daude.



4.5. taula Europako eraikuntza-enpresa nagusiak.


ENPRESA	HERRIALDEA		
1. Vinci	Frantzia	33.930	29.149
2. Bouygues	Frantzia	32.713	24.771
3. Hochtief AG	Alemania	21.643	21.643
4. Skanska AB	Suedia	15.218	15.128
5. Strabag	Austria	13.743	13.743
6. Balfour Beatty Plc	Erresuma Batuan	12.008	12.008
7. Eiffage	Frantzia	13.226	11.358
8. Bilfinger Berger AG	Alemania	10.742	10.742
9. Koninklijke BAM Groep nv	Herbehereak	9.264	9.264
10. FCC	Espainia	14.016	7.744
11. ACS Activad. Construc. Y Servicios	Espainia	16.010	6.625
16. Grupo Ferrovial S.A.	Espainia	14.126	5.155

* Eraikuntzatik kanpo enpresek dituzten jardueretako salmenten datuak ere barne hartu dira.
Iturria: Delotte, European Powers of Construction 2009.

4.5. Kanpo-jarduera


Europako eraikuntzaren sektoreko enpresen kanpo-jarduerak zerbait behera egin zuen 2009an, aurreko urtean nabarmenki gora egin ondoren. Hain zuzen, kanpo-fakturazioaren guttizko bolumena 139.500 milioi eurora iritsi zen, hau da, 2008an fakturatutako bolumena baino % 5 gutxiago, baina 2007ko fakturazioa baino % 15 gehiago.

4.6. grafikoa Kanpo-fakturazioaren bolumenaren bilakaera. 2001-2009.



Iturria: European International Contractors.


Frantziako eta Alemaniako enpresek lortu dute bolumen handiena nazioarteko fakturazioan: 26.300 eta 24.600 milioi euro, hurrenez hurren. Era berean, Suedia, Espainia, Holanda eta Britainia Handiko enpresek fakturazio kopurua altuak erregistratu



dituzte, baina aurrekoenak baino dezente baxuagoak: 13.000 milioi euro inguruko balioak lortu dituzte enpresa suediarrek eta 9.000 milioi euro ingurukoak enpresa britainiarrek.

Epe luzerako bilakaerari erreparatuz, enpresa frantsesen eta alemanen kasuan azken urteetako bilakaera positiboa izan dela baieztatu daitezke -2009ko murrizketa txikia salbu-; enpresa suediarrek, aitzitik, murrizketa ezagutu dute, eta kanpo-jarduera ere gutxitu egin da.

4.7. grafikoa Europako herrialde nagusien nazioarteko fakturazioaren bilakaera. 2001-2009.



Iturria: European International Contractors.

Kanpo-fakturazioaren noranzkoari dagokionez, Europako merkatuak bereganatzen du sektoreko nazioarteko guztizko fakturazioaren % 49; proportzio altua izanik ere, murrizten ari da, izan ere, 2008an Europako merkatuak kanpo-fakturazioaren % 52 bereganatzen zuen, eta % 55 2006an.

Amerikako Estatu Batuak eta Kanada, halaber, Europako enpresen nazioarteko fakturazioaren norako oso garrantzitsuak dira (guztizkoaren % 15), nahiz eta aurreko urteetan lortutako kuota murriztu den bien kasuan; eta murrizketa hori merkatu afrikarrak irabazi du, neurri batean, kanpo-fakturazioaren % 10 bereganatuz (% 8 2008an eta % 6 2007an).

Bestalde, eraikuntza-enpresek egindako nazioarteko kontratu berriekin 143.000 milioi euro lortu dituzte 2009an; 2008an 163.000 milioi kontratatu ziren, 2009an baino gehiago, baina 2007ko mailaren parean (146.000 milioi euro). Datu horien arabera, datorren urtera begira nazioarteko fakturazioa berriro ere murriztuko dela aurreikusitu daitezke.



4.6. Sektorearen perspektibak

Europako Batzordeak Europako ekonomiak izango duen bilakaerari buruz egindako aurreikuspenen arabera, jada hasi da egoera suspertzen. 2009ko bigarren zatian joera-aldaketa izan zen eta Europar Batasunak inoiz ezagututako murrizketa luze eta sakonenarekin amaitzeko bideari ekin zion. Lehen esandakoa gogora ekarriz, Batzordearen aurreikuspenen arabera, 2010ean BPGd-k hazkunde positiboa ezagutuko du (+% 1,8, aurretik egindako aurreikuspenak zortzi hamarren hobetuz), eta hobekuntza horri eutsiko zaio oro har 2011an (+% 1,7).

Lan-merkatuari dagokionez, ezin da ahaztu normalean krisialdiak ekoizpenean eta enpleguan eragindako ondorioak beranduagoa nabarmentzen direla, hortaz, 2010ean oraindik murrizketa egongo dela aurreikusi da, nahiz eta ez den hain nabarmena izango, eta 2011ra begira egoera egonkortzen hasiko da eta hazkunde positiboa lortuko da (+% 0,3).

4.6. taula EB-25 eskualdeko makroekonomiaren bilakaera eta aurreikuspenak, 2000-2006. 2004-2010.

(Aldaketa errealaren %)


URTEA	BPGd	Enplegua
2004	2,5	0,7
2005	2,0	1,0
2006	3,2	1,5
2007	2,9	1,7
2008	0,7	0,9
2009*	-4,2	-2,0
2010**	1,8	-0,9
2011**	1,7	0,3

* Zenbatespena; ** Aurreikuspena.

Iturria: European Economy. Interim Forecast September 2010 eta Spring 2010 Forecast.


Eraikuntzaren sektoreari helduta, Europako Batzordeak egindako aurreikuspenen arabera, 2007an bizitegi-eraikuntzaren azpisektorean hasitako murrizketa 2010era arte luzatuko da, kontuan hartuta etxebizitza-eskaria neurritsua dela, prezioen doikuntzari ekin zaiola eta saldu gabe dagoen stock-a, etxebizitzako inbertsio berrietarako oztopo izan daitekeena. Bestalde, bizitegiak ez diren etxebizitzaren azpisektoreak emaitza hobekiak lor ditzake 2010ean, gobernuen azpiegiturretan egindako finantzaketari esker, neurri handi batean. Gauzak horrela, bizitegi-osagaiaren ahultasuna konpentsatzea lortuko litzateke nolabait.

Hala ere, FIEC erakundeak egindako zenbatespenei helduta, eraikuntzaren sektoreak 2010 amaieran % 3,7ko hazkunde-tasa negatiboa edukitzea espero da. Eraikuntza berriko bizitegi-segmentuak ezagutuko luke murrizketa handiena (-% 8,3), bai eta




bizitegikoa ez den segmentuaren osagai pribatuak ere (-% 7,4). Dena den, bizitegikoa ez den azpisektorearen osagai publikoak (+% 1,5) eta obra zibilarenak (+% 0,4), hazkunde positiboak lortuko lituzkete urtea ixtean, betiere FIEC erakundeak egindako aurreikuspenen arabera. Bestetik, birgaitze-jardueren eta mantentze-lanen murrizketa ez litzateke etxebizitza berriaren eraikuntzarena (-% 1,5) bezain garrantzitsua izango.

4.8. grafikoa Eraikuntza-sektorearen ekoizpenaren bilakaera, azpisektoreka. EB 2010



Iturria: FIEC



5. LABURPENA ETA ONDORIOAK

a) Sektoreak berriki izandako bilakaera


Euskal ekonomiak azken urteetako historia ekonomikoaren emaitzarik kaxkarrena erregistratu zuen 2009an. BPGd-k urteko % 3,8ko murrizketa izan zuen, ekonomia espainolak (-% 3,7) eta europarrak (-% 4,2) ezagututakoaren parean. Murrizketa nagusi izan den testuinguru horretan, urtearen azken zatian jardueraren beheraldia neurritsuagoa izan dela azpimarratu behar da, bai eta euskal ekonomiak 2010ean zerbait hobera egitea lortu duela ere.

Eraikuntzaren sektorean 2008an jada antzeman ziren beheraldiaren lehen zantzuak, ekoizpenak % 5,8ko beherakada ezagutu zuenean. 2009an murrizten jarraitu zuen, nahiz eta murrizketa neurritsuagoa izan zen (-% 3,6), baina 2010eko datuek (-% 5,4 lehen hiruhilekoan, -% 5,5 bigarrenean) ez dute joera hori berretsi. Bestalde, 2009an estatuan eta Europan lortutako ekoizpenak murrizketa dezente esanguratsuagoak erakusten ditu: - % 6,2 eta -% 7,5, hurrenez hurren.

Azpi-sektoreen arabera, eraikuntzaren esparruan (etxebizitza berriaren eraikuntzarenean, nagusiki) nabarmenagoa izan da krisialdi ekonomikoaren eragina; obra zibilaren eta bizitegiak ez den eraikuntzaren kasuan, berriz, ekoizpenak murrizketa neurritsuagoa ezagutu du, baina, hala ere, ez da nahikoa izan bizitegi-eraikuntzak ezagutu duen beherakada konpentsatzeko. Obra zibilak EAEn ezagutu duen murrizketa % 6,2koa izan zen 2009an, Europakoa baino altuagoa (-% 2,8); estatuan, berriz, kontrakoa gertatu da, azken urtean ekoizpena areagotzea lortu delarik (+% 2,5).

Horrezaz gainera, 2009an eraikuntzaren sektorean barne hartutako enpresen bolumenak ezagutu duen murrizketa azpimarratu behar da, azken hamarkadan behin eta berriro hazkundeak ezagutu ondoren. Alabaina, EJSN-93 sailkapenaren arabera 45. epigrafean barne hartutako establezimendu kopurua 30.340koa zen EAEn (-% 3,8), eta estatuan, berriz, murrizketa handiagoa izan zen, izan ere, 441.956 establezimendu daude, hau da, 2008an baino % 12 gutxiago. Europar Batasunean, azkenik, 3 milioi establezimendu inguru daude eraikuntzaren sektorean.

Sektoreko establezimenduek erakutsitako bilakaerarekin bat eginik, enpleguak murrizketa handia ezagutu du, halaber. Zehazki, 2009an EAEko eraikuntzaren sektorean 77.800 enplegatu zeuden, hau da, urteko murrizketa % 6,2koa izan da. Bereziki azpimarragarria da Espainiako sektorean izan den enplegu-galera, izan ere, 2009an dauden enplegatuak 2008an baino % 23 gutxiago dira, eta ehuneko horrek




Europar Batasunean izandako murrizketa handienetako baten aurrean gaudela erakusten du. Europar Batasunean -% 8,3koa izan zen murrizketa.

Eraikuntzaren sektoreak EAEn beste sektore batzuetatik desberdintzen duten ezaugarri jakin batzuk ditu. Horrela, gizonezkoen agerpen handia azpimarratu behar da, eta autonomo kopuru altua, sektoreak barne hartzen dituen jardueren aniztasuna, tamaina txikiko enpresen nagusitasuna eta laneko ezbehar kopuru altua; hala ere, azken ezaugarri horri helduta, azken urteetan kopurua murriztuz joan dela azpimarratu behar da.

Lehen ere esan den moduan, azken urtean nabarmenki murriztu da bizitegi-eraikuntzaren ekoizpena. Egoera horren beste adierazle garbi bat, eraikitzen hasitako etxebizitza berrien kopuruak ezagututako beherakada da. 2009an EAEn 7.051 etxebizitzaren eraikuntzari ekin zitzaion (3.855 libreak eta 3.196 babes publikokoa), hau da, aurreko urtean baino % 43 gutxiago eta 1997tik estatistika-serieko baliorik baxuena. 2010eko lehen seihilekoan 2.700 etxebizitza bakarrik hasi ziren eraikitzen. Estatu osoan ezagutu den murrizketa are handiagoa da, izan ere, 2009an 159.300 etxebizitza hasi dira eraikitzen, hau da, 2008an hasitakoan erdia eta 2006an hasitakoak baino bost aldiz gutxiago.

Aurreikuspenen arabera, etxebizitza berriaren eraikuntzak ezagututako murrizketaren ondorioz, birgaitze-jarduera indartuko zen. Hala ere, 2009an eraikinak handitzeko eta/edo birgaitzeko jarduerak atzera egin dutela baieztatu da, emandako baimenak % 14,5 murriztu direlarik. Jarduera baxuagoa izanik ere, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak birgaitzera zuzendutako laguntzekin konpentsatu da egoera. Horrela, 2009an emandako dirulaguntzak 22,5 milioi euroko zenbatekora iritsi ziren, hau da, aurreko urtean baino % 54 gehiago.

Eskaintza ofizialari dagokionez, 2009an EAEn eskainitako guztizko bolumena 2.747 milioi euroko zenbatekora iritsi da, aurreko urtean egindako eskaintza baino % 16 gehiago. Tokiko Administrazioak bereganatzen du guztizko zenbatekoaren % 59, Eusko Jaurlaritzak % 31 eta Estatuko Administrazioak, azkenik, gainerako % 10. Obra motaren arabera, obra zibilak bereganatu du eskaintzaren zatirik handiena (% 61), eta gainerako % 39 eraikuntzara zuzendu da. Datu horien arabera, datozen urteetan administrazioarekin lotutako obra publikoan eraikuntza-jarduera garrantzitsua garatuko dela aurreikusi daiteke.



b) Sectorearen perspektibak


2008 amaieran eta 2009 hasieran izandako atzerapenak 1930etik bizitako egoera ekonomiko orokor kaxkarrenetakoa eragin du. Hala ere, 2009 amaiera aldera joera-aldaketa izan zen, eta Europako Batzordeak egindako aurreikuspenen arabera, ekonomia europarra hasi da jada hobera egiten, nahiz eta pixkanaka den eta finantza-sektoreak eta aurrekontu publikoek dakartzaten oztopo ugari aurre egin beharko zaion. 2009ko bigarren hiruhilekoan munduko ekonomietan hasi ziren hiruhileko batetik besterako BPGd-ren lehen hazkundeak nabarmentzen, eta 2010eko lehen erdian mundu-mailan hobera egiteko aukerak ikusi dira, batez ere garapen-bidean dauden herrialde asiarrei esker.

Consensus Forecast argitalpenak egindako zenbatespenen arabera, munduko ekonomiak % 3,7ko gorakada ezagutuko du 2010ean eta hazkunde hori % 3 inguru indartuko da 2011n. Hala ere, Europan geldoago egingo da hobera, eta hazkunde-erritmoak motelagoak izango dira. Aztertutako iturri desberdinen arabera, 2010ean eta 2011n hazkunde positiboak lortuko dira. Hain zuzen ere, *Consensus Forecast* argitalpenaren arabera, urtean % 1,5eko hazkundeak lortuko dira. Bestalde, Europako Batzordeak BPGd-ren % 1,8ko hazkunde aurreikusi du 2010erako, eta 2011n hazkunde horri eutsiko zaiola esan du (+% 1,7). Alemania izango da, nagusiki, hobekuntzaren eragile nagusia.

Bestalde, Espainiak arazo handiak ditu, euro guneko langabezia-tasarik altuena duelako eta bere ekonomia kaxkarra hobetzeko zailtasun gehien dituen herrialdeetako bat delako. Alabaina, eta 2010erako egindako zenbatespenen arabera, Espainia izango da, Europako ekonomia nagusien artean, hazkunde-tasa negatiboa erregistratuko duen herrialde bakarra: --% 0,3 Espainiako gobernuaren eta NMFren arabera, -% 0,4 Espainiako Bankuaren eta Consensus Forecast-en arabera, eta -% 0,6 Ceprede-ren arabera. 2011rako aldaketa positiboak aurreikusi dituzte adituek bilakaera ekonomikoari dagokionez, eta +% 0,6 inguruko hobekuntza egongo dela aurreikusi dute (+% 1,3 gobernuaren arabera).

Euskal ekonomiari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egindako aurreikuspenek 2010ean urte arteko % 0,2ko hazkunde-tasa lortuko dela adierazten dute eta % 1,4koa 2011rako, hau da, Estatuko ekonomiaren kasuan aurreikusitako hazkundeen gainetik, eta Europako hazkudetik hurbilago.

Dena den, ekonomiaren hobekuntzaren testuinguru orokor horretan, eraikuntzaren sektorearen bilakaerari buruz egindako aurreikuspenak ez dira hain positiboak eta badirudi 2010 urtea ixtean hazkunde-tasak oso negatiboak izango direla oraindik.



Esanak esan, EAerako egindako aurreikuspenen arabera, datozen bi urteetan hazkundera zerbait hobetuko dela dirudi, eraikuntzaren sektorean izan ezik. Azken horretan, 2010ean eta 2011n ekarpen negatiboak egingo direla aurreikusi da, -% 4,7 eta -% 2,2 ingurukoak, hurrenez hurren. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren arabera, bizitegi-azpisektoreak doikuntza-prozesu batean sartuta jarraituko du, eta obra zibilak, bestalde, ez du lortuko bizitegi-eraikuntzak jasandako kaltea konpentsatzea.

Horrezaz gainera, Espainiako eraikuntza-sektorerako egindako aurreikuspenen arabera, 2010ean % 7ko murrizketa egongo da; FIEC erakundearen arabera, Europako eraikuntzak % 3,7ko hazkunde negatiboa erregistratuko du 2010 ixtean.